

GUaiXe.eus



**Ezkurdia eta
Zubieta buruz
burukoansartuak**



Kirolak >> 11

**Maisuenea gaztetxe olaztiarrak
20. urteurrena ospatzeko musika
jaialdia antolatu du biharko. Bost
talde eta dj-a ariko dira**



Kultura >> 15-16



Sakanako Ibilaldia bihar

>> 11



Sakanako eskolen festa Olatzagutian

>> 5



**LOMCEren
kanpo
azterketen
kontra**

>> 3



**SEEn
prestakuntza
ikastaroak
geldituta**

>> 5



**Sindikatu
aldarrikapenak
kalean entzun
ziren**

>> 8



**Musikarien eta
herriaren
aitortza Enrike
Zelaiari**

>> 14



**Amateur
Antzerki Zikloa
Altsasun,
bihartik**

>> 14

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.net
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Izei Zubiria Sanchez

Ongi etorri gure artera, Izei! ZORIONAK! Poztasunez bete gaituzu.



Unai Rekalde Senar

Eutsi goiari. Maite zaitugu. Txapeldun.



Maialen Larraza Senar
ZORIONAK guapisi-ma!! Dagoeneko zazpi urte bete dituzu, ondo pasa zure egunean, etxeakoak.

maiatzak

8-14

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Asalto, Ludovaina eta Eskozor. Maiatzaren 8an, ostiralean, 23:30ean Iturmendiko Aritzaga elkarteak.

Gozategi, Behin Betiko, Hesian, Arkada Social, Ludovaina eta Oihan Vega. Maiatzaren 9an, larunbatean, 18:30etik aurrera Olatzagutian

Dantza

Elai Alai eguna. Maiatzaren 10ean, igandean, 12:00etatik aurrera Lakuntzan.

The dancing dead. Maiatzaren 9an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Ludotekako dantza tailerra.**

Antzerkia

Historia sexual de la humanidad. Maiatzaren 8an, ostiralean, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Iluna producciones.**

Sueño de una noche de verano. Maiatzaren 9an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Kilkarrak.**

Un cuento de caballeros. Maiatzaren 10ean, igandean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Iluna producciones.**

Oneka marrazoa. Maiatzaren 10ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Ene Kantak.**

Pailazoak

Pantxika eta Txinparta. Maiatzaren 9an, larunbatean, 13:00etan Olatzagutiko San Migel plazan.

Dokumentalak

Verd Dolç Jazz. Tres mirades vers El Martinet. Maiatzaren 13an, asteazkenean, 18:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Zinema

Negociador. Maiatzaren 8an, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 10ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.



Ostiralean Orritzeko eta Tolosako Udaberri dantza taldeko 60 bat dantzarik jaialdi ederra eskaini zuten Irurtzunen. NEREA MAZKIARAN

Baztan. Maiatzaren 10ean, domekan, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Hermosa juventud. Maiatzaren 11n, astelehenean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

El nuevo exótico hotel Marigold. Maiatzaren 14an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.



Mendi irteerak

Sakanako Ibilaldi Handia. Maiatzaren 9an, larunbatean, 7:00etan. Iratxo mendi taldea.

Lizarrusti-Altzaga. Maiatzaren 10ean, igandean, 7:00etan. **Sakanako Mendizaleak.**

Lakuntza Amezketza zeharkaldia. Maiatzaren 10ean, domekan, goizez. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Ganboa-Altsasu. Maiatzaren 9an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko kultur gune pareetik. 108 km. Zikloturista taldea.

Altsasu-Zumaia. Maiatzaren 10ean, domekan, 7:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 72 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Irteerak

Arruazura. Maiatzaren 10ean, igandean, 9:00etatik aurrera. **Immigrazio Zerbitzua.**

Erakusketak

Koldo Anrizen arte eskola. Maiatzaren 17ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Iturmendiko argazkiak. Maiatzaren 9an,

larunbatean, egunean zehar Iturmendiko auzoan.

Bestelakoak

Gazte 2 aste. Maiatzaren 8tik 16ra Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Ikusi 9. orria.**

Sakanako herri eskolen jaia. Maiatzaren 9an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Olatzagutian. **Ikus 5. orria.**

Lakuntzako odol-emaileen festa. Maiatzaren 10ean, igandean, 12:30ean Lakuntzako Lakuntzako Pertza elkarteak.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 8an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 10ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Udan Euskarazi buruzko informazio bilera. Maiatzaren 12an, asteartean, 15:30ean Olatzagutiko Akelarre ludotekan.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.eus

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,

LOMCEren kanpo azterketak, Maisueneak
20 urte, Sakanako herri eskolen festa, Sergio Goikoetxea, Zelandiko kulturarteko astea

Esataria: *Maider*

SAKANA

Ikasleendako kanpo azterketen kontrako protestak



Lakuntzako eta Altsasuko eskoletan eta Andra Mari ikastolan egin dira protestak.

Guraso eta irakasleek LOMCE dela eta Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek pasa dituzten kanpo azterketen kontrako protestak egin dituzte. Guraso batzuek ez dituzte seme-alabak klasera eraman

LOMCE Legetik eratorritako kanpo azterketak “alferrikakoak” direla uste dute familia askok, “ez dutelako ez ikaskuntza maila ezta hezkuntza kalitatea neurtzeko balio. Ebaluaketa jarraiaren pro-

zesuarekin hausten dutela uste dugu”. Familiak beldur dira hezkuntza estrategiak eta metodologiak aldatuko ote diren azterketa horiek gainditzeko. Beldur gehiago badute: “probaren emaitzak ikasle eta ikastetxeetan bereizkeria ekarriko ote duen”.

Lehen Hezkuntzako ikasleei egin zaizkien probak ez dute inolako balio akademikorik, baina “presioa

eragiten” diela salatu dute familiak. Presio hori DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako ikasleen kasuan presioa nolakoa izan den galdetu dute. Hezkuntza Departamentuaren “inposaketa” salatu dute, proba derrigorrezko bihurtzeagatik, emaitzak espedienteetan sartzeagatik eta anonimotasunerako eskaerei ezetza emateagatik.

Ikasleek astelehenean irakurketa proba egin zuten, asteartean idazketa proba, asteazkenean matematikakoa eta ostegunean ingelesekoa.

Bestelako hezkuntza ereduaren alde

Halaxe agertu dira familia eta irakasle asko. LOMCEk sistema “zaharkitu” bat dakarrela eta ikuspegi pedagogikotik premiazko aldaketak eskatu dituzte, besteak beste: ikasleriaren beharrak errespetatzea, ikasteko eta garatzeko erritmo ezberdinak aintzat hartzea eta hezkuntza komunitatearen ahotsa entzutea.

>> Aranatz / Burunda



Hainbat arlotako profesionalak biltzen ditu tratu onen sareak. UTZITAKOA

Haur eta familien alde trebatzen

Haurrei eta familiei tratu ona emateko sarea 2013tik lanean da Etxarri Aranatz inguruko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hartzen dituen herrietarako. Sare horretan hurrekin eta familiekin lan egiten duten hainbat arlotako profesionalak elkartzeko dira: hezkuntza, osasuna, Foruzaingoa, gizarte zerbitzuak...

Haurrek jasan ditzaketen tratu txarrak azkarrago eta zehatzago atzematea da sarearen helburuetako bat. Horretarako, profe-

sionalen artean hizkuntza komuna bilatu eta tratu txarrek eragin ditzaketen kalteak ahalik eta txikiak izandaitezen bide azkarra jartzeko lan egiten du sareak. Hori horrela izan dadin, sarea osatzen duten pertsonak trebatu egiten dira. Haiendako propio izan diren prestakuntza saioak ostiralean despiditu ziren. Azken saio hartan Gaztelu Lus psikologoak adimen emozionala eta gatazkak konpontzeko tresnak ezagutzeari buruz aritu zen.

SAKANDARROK
garaile!

EMAN BOTOA
ehbildu

www.ehbildu.eus

#HerritarrokGaraile

EKITALDIA:

M8 Altsasu
lortia kultur gunearen aurrean,
19:00etan.

Leihoak
ireki



Alfonbrak
altxa



Norabidea
aldatu



Adolfo Araiz



Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

Gatazka handiena

astekoa

Bizi dugun garai zoro honetan egunero jaikitzen garenetik hamaika gatazkatxotan murgilduta ikusten dugu gure burua. Familia barnean, lanean, gizartean. Gatazka txikiak eta handiak, kolektiboak eta bakarkakoak, alaitasunez garatzen direnak eta gogorrenak, irabazteko itxaropenarekin ematen dire-

nak eta ditugun printzipioen ize-nean borrokatzen ditugunak. Baina batzuetan bat-batean gatazka txiki eta handi horiek utzi egin behar dira, gatazken gatazkariaurreegiteko, biziaren alde borrokatzeko, osasuna berreskuratzeko.

Lehenengo kolpea: diagnostikoa. Altxa egin behar datorrena-

ri ekiteko. Ebakuntza. Kimioa, albo-ondorio guztiekin. Batzuetan radioa ere bai. Aldaketa fisikoak. Nahiz eta burua prest egon gorputzak ezin jarraitu. Bien arteko oreka berreskuratzen lanak. Buruko minak, ikusmenaren momentuzko galtzea, kontzentratzeko zailtasunak. Eta aurre-eragin behar, borroka garaitu dai-

tekeelako.

Gatazka gertutik jarraitzen ez duenak ez daki batzuetan zer egin, zer esan. Medikuntzangauzak asko aldatu direla eta sendatu daitekeela, baikor mantendu beharra dagoela, itxurak garrantzirik ez daukala eta pertsona horren gainetik dagoela? Bai, egia dena, baina hitz hutsak diru-

dite dagoen minaren aurrean. Eta ez asmatze horretan batzuetan egunek aurrera egiten digute besarkada handi bat eman gabe, animo hitz batzuk ahoskatu gabe. Gure gatazkatxo propioetan galdurik. Barkatu.

Borrokan zaudeten guztioi besarkada bat eta zueimuxu handi bat. Laister arte.

barrutik kanpora

Senideak bidean

Joan zen igandean Etixeraten XIV. Nazio Batzarra egin genuen. 500 lagundik gora bilduginen Euskal preso eta iheslari politikoen senide eta lagunok elkarri berotasuna eta maitasuna emanez, bidean aurrera indarturik egiteko.

Batzar hau ezohikoa izan da, bai senideon asistentzia aldetik, baita eragile ezberdinek erakutsi diguten babes aldetik. Baina, ezohikoa ere testuinguru berezi batean etortzen delako, urte hau bereziki latza izaten ari baita guretako eta gure ingurukoendako.

Alde batetik, argi dago gure senide presoek min emateko zigortuak garen senide eta lagunak

garela. Dispersio politika anker horren alderdi mingarrienak kolpatu gaitu beste behin ere; aurreten hilabeteko istripu bana izan dugu apirilaren bitartean. Historiak ezingo du zalantzan jarri gure sufrimenduaren aitortza. Errelato horretan, dispersioak eraildako hamasei lagun ditugu.

Beste alde batetik, presoekiko elkartasuna eta haien eskubideak betearazteko babes kriminalizatzeko saioa izan da. Besteak beste, sakabanaketa eta gaixodauden preso enegoera salatzeko gure ahotza Europara eraman zutenetako baten atxiloketa, abokatuen atxiloketa eta horren harira dekla-

ratzeko azken aste hauetan egin dituzten zitazioak. Gure senide presoek bi funtsezko oinarri deuseztatu nahi izan dituzte: defentsa juridikoa eta osasungintza.

Gobernu espainol eta frantsesak darabilten giza eskubideen urraketa sistematikoen aurkako ahots kritiko eta deserosoa gara. Horren adibide bat besterik ez da Nazio Batuen Torturaren Aurkako Komiteak preso enegoeraz eta sakabanaketaz erakutsi duen kezka. Batzar honek bide egokian ari garela erakutsi digu. Sakabanaketaren bukaeraren hasiera marrazten ari gara.

Sakanako Etixerat

gutunak

Altsasuren garapen ekonomikoa gure helburua

Javier Olló Martínez (Altsasuko alkate-tzarako Geroa Bai-ren hautagaia)

Hurrengo udal hauteskundeek berezko garrantzia daukate Altsasuren orainari eta etorkizunari dagokionez. Gizarteak alderdi politikoei beren eta sistema beraren erregenerazioa exijitzen die, erregenerazio honen eskarian erakunde publikoek toki berezi bat okupatu.

Erakunde enregenerazioa bilatzen baldin badugu, orokorrean, eta konkretuki Altsasuko Udalarena, gizartearen eskariak

entzun behar ditugu. Eskari horien artean gure herriaren garapen ekonomikoa aurkitzen dugu. Udaletik garapen ekonomiko horren alde ekintzak gauzatu behar dira, alde batetik altsasuarrek beraien negozioak irekitzeko erraztasunak emanez eta beste aldetik, Altsasu berriro gune erakargarri bihurtuz kanpotik enpresak etor daitezen. Udalak gure herriaren oinarri ekonomiko sendoak finkatu behar ditu gurean dauden sektore ekonomikoek berriro aurrera egiteko. Oinarri horien artean alderdi desberdinen arteko adostasunak ekarri behar duen egonkortasun instituzionala dau-

kagu. Honi erakunde desberdinen arteko harreman egonkorra gehitu behar diogu (adb. Sakanako Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernu), bai eta agente ekonomiko desberdinekin elkarlan estua ere (dendariak, sindikatuak, enpresariak, ostalariak, etab.).

Iraganean gure herria ekonomikoki zailak ziren momentuetatik atera zen eta orain berriro lortuko du. Altsasuarrak ordezkatzeko helburu dugunok hurrengo belaunaldietan pentsatu behar dugu eta ez hurrengo hauteskundeetan. Akordioak bilatu ditza-gun, gure herriak etorkizun oparo bat merezi baitu.

hara zer dien

Zaintzaile nagusiaren gainkarga

Nahiz eta azken urte hauetan egoera asko aldatu, bai emakumeak etxetik at lanean hasi direlako, bai dibortzioak ugartu direlako, bai gero eta seme-alaba gutxiago izaten ditugulako, baita senideen arteko harreman ahulago izaten delako, Alzheimer gaixotasuna duten pertsonengan familiak ardura nagusia izaten jarraitzen du. Uste da, gaixorik dauden %80ren bat beraien senideekin bizi direla. Hala ere, familiako guztiek ez dute ardura bera izaten, oro har ardura hori familiako batek hartzen du eta honek jasaten ditu zaintza horren eragin kaltegarrienak. Literatura zientifikokan, zaintzaile honi zaintzaile nagusia deritzote. Oro har, emakumezkoa izaten da: emaztea, alaba edo a erraina, hamarretik zortzi hain zuzen, 45 eta 65 urte bitartekoak. Gizonezkoak pixkanaka parte gehiago hartzen ari dira, bai zaintzaile nagusiaren rolean edota laguntzaile gisa. Horrek erakusten du zerbait aldatzen ari dela.

Gure beharra duen senide baten zaintzan parte hartzea esperientzia aberatsa izan daiteke eta gizarteak horionartu eta eskertu beharko luke, horrek izugarrizko ardura eta presio pentsaezinak eragiten baititu. Horregatik, Alzheimer gaixoen zaintzaileak lehenengo mailako zaintzaile gisa onartuak egon beharko lirarteke, beraiek baitira arlo desberdinetan lan egiten dutenak (elkaduran, garbitasunean...), beraiek baitira lehenengoak gaixoaren aldatketak sumatu eta egiaztatzen dituztenak. Horretaz gain, beraiek dira gaixoaren arduradun zuzenak, mantenuan nahiz estimulatze kogaian, giro lasaian eta seguruan. Beraien

lananekagarria da, bai fisikoki, bai psikologikoki, gaixotasuna aurrera doan heinean zaintzaileek ere beraien jokaera aldatzen joan behar baitute, gaixoak eskatzen duen neurrian. Hori dena maitasun eta goxotasun baten barruan, egunean 24 ordu eta denbora luzez. Ez da bate-re harritzekoa Alzheimer gaixotak zaintzen dituzten pertsonen tentsio handia jasan behar izatea.

Alzheimer gaixotasuna zaintzairen ondorioak zaintzaile nagusiaren, arlo biologikoan, psikologikoan eta harremanetan ondorioztatzen dira. Ondorio hauek jasaten dituzten pertsoei “zaintzaile erre” deitzen zaie. Zaintzaile hauek gaixorik dagoen pertsonarekin batera tratatuta egon beharko lukete, batetik zaintzen ikasteko eta bestetik familiaren barruan sortzen diren egoera zailei aurre egiteko.

Ezin dugu ahaztu zeinen garrantzitsua den, “zaintzailea bera zaintzea” eta bere burua zaintzen irakastea. Horregatik, burutik gaixodauden pertsonen eskaintzen diogun arreta, babes, aholku edo zaintzaz gain, baloratu behar dugu zaintzaile nagusiaren egoera. Sarri beraien osasuna bigarren lerro batean uzten da. Zaintzaileak kontutan izan behar du zeinen garrantzitsua den bere burua zaintzea, bere atsedena, aisialdia eta babes emozionala zainduz gero, hobeki zainduko baitu bere senidea. Zaindu burua, zaindu gorputza, zaindu emozioak, zaindu harremanak.

Josefina Arregi klinika

Osorik: www.guaixe.eus

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:



46 LANGABE GUTXIAGO: Altsasuko enplegu bulegoan 1.279 sakandar zeuden izena emanda apirila akaberan, aurreko hilean baino 46 gutxiago (%3,47ko jaixiera). Api-

rilean Altsasuko enplegu bulegoaren bidez 493 kontratu sinatu ziren eta haietatik soilik 31 ziren mugagabeak.

sakanerria >>

SEEren prestakuntza ikastaroak bertan behera

Nafarroako eta estatuko diru-laguntzen legediak kontrajarriak direlako izan da

Sakanako Enpresarien Elkartea (SEE) langileendako prestakuntza ikastaroak antolatu ditu urtero. Aurten ere zazpi ikastaro iragarri ditu eta izena emateko epea zabaldua zuen ere. Baina elkarteak guztia bertan behera uztera behartu dute. SEEk ez daki antolatutako ikastaroak eskaintzeko aukerarik izanen duen. Hala bada, behar bezala jakinaraziko duela aurreratu du. Bitartean, ikastaroetan interesa azaldu duten sakandarrei haiek aurrera ez dutela eginen badakite-larri ziurtatzeko SEErekin harreman-

netan jartzeko eskatu dute, 948 468 307 telefonora hots eginez.

Langileendako doako prestakuntza eskaintzeko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen zuen SEEk. Baina Nafarroan prestakuntzarako dirua banatzeko akordioak eta Espainiako Gobernuak onartutakoak kontrajarriak dira. Azken horrek langileen trebakuntzan aritzeko enpresa eta prestakuntza zentro guztien konkurrentzia askea sustatu nahi du eta administrazio publiko guztiei eragiten die. Horren ondorioz, SEEren egoera berean dira UGTren eta CCOOren prestakuntza ikastaroak.



Informetikan trebatzeko ikastaro batean.

SAKANA



Olatzagutiko eskola komunitateak sakandarrak festara gonbidatu ditu.

Olatzagutia Sakanako eskolen bilgune

Bihar ikastetxe publikoek euren festa ospatuko dute bosgarrenez, Sakana herri-eskolekin sortzen lelopean

Sakanako eskoletako hezkuntza komunitate guztiak bihar Olatzagutian dute hitzordua. Irurtzundik Olatzagutia bitarteko eskolek guztira 1.400 bat ikasle hartzen dituzte. Biharko egunarekin eskola kalera atera eta sare publikoa erreferente gisa sustatzeko asmoz antolatu dute. Aldi berean, parte hartze aktiboa sustatu nahi dute, baita ikastetxeen arteko elkarlana ere.

Aurkezpenean Olatzagutiko eskolako ikasleek bertsoetan ikastetxe publikoen identitatea eta aniztasuna aldarrikatu zuten.

Etxarri Aranatz, Lakuntza, Arbizu eta Altsasun aurretik egindako festetan islatu izan da. Antolakuntza lanetan ibarretako eskolak, haietako guraso elkarteak eta Sortzen ari dira.

Elkarlanaren adibideak

Sakanako ikastetxeak ibarreko curriculumak sortzen hasi dira. Institutuarekin elkarlanean haren ate irekien eguna antolatzen dute eta Haur Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzaren arteko koordinazioa sustatzen ari dira.

Bestalde, Arbizu, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutiko ikastetxeek elkarrekin eskola txikien festa ere antolatzen dute. Lau

Egitaraua

San Migel enparantzan
10:00etatik 13:00etara Tailerrak. Herri eskoletako guraso elkartearen eskutik.
11:00etan Aurkezpena. Bertsoak eskolako ikasleekin. Eskolako abestia.
Euskaraz bizi nahi dut flash-movie.
Denak dantzatzera!
14:00etan Festa bukaera.
14:30ean Herri bazkaria.

Sarasate enparantzan
11:30ean Euskaraz Mintza jokoak txikiendako.
12:00etan Euskaraz mintza Altxorraren bila.
13:00etan Pantxika eta Txinparta pailazoak.
Bukatzeke, eskolako gurasoek egindako etxeko postreen zozketa eginen da.
10:00etatik 13:00etara Tailerrak Hamarratz: josi dezagun denen artean panpin erraldoia... Euskara herria! Henna, trentzak, pastak eta tea. (Mank-eko Immigrazio Zerbitzua).
10:00etatik 14:00etara Txikiendako puzgarria.

Argomaniz enparantza
12:00etan Aizkolarien erakusketa.

Oharrak:
Festako tabernan freskagarriak eta pintxoak izanen dira.
Eguraldi txarra eginez gero festa kiroldegian eginen da eta bazkaria eskolako frontoian.
Aparkekalea, kiroldegian.

eskolek, gainera, plan estrategikoa martxan dute. Horren barruan gurasoak elkartzeko ekintzak, elkarrekin pedagogia proiektu bera martxan jartzen ari dira, lanak elkarrekin zehazten ari dira.

Ostiraletik maiatzak zutik

Maiatzaren lehenarekin batera etxarriarrak, bakaikuarrak, iturmendiarrak eta ziordiarrek maiatza zutitzeko langintzari heldu zioten. Euren egitekoa despiditzen lehenak bakaikuarrak izan ziren. Joan den urteko enbor bera erabilita eguerdirako maiatza barga gainean zutik zegoen.

Orduan ekin zioten ziordiarrek euren maiatza barga gainean jar-

tzeari. Estreinakoa zuten hantartzen zutena eta 70 bat izan ziren mendira igo zirenak. Lanak berehala egin zituzten. Baina ez zen ziordiarrek jaso zuten maiatza bakarra. Herrira jaitsi eta txipudian herriko txikiak beste maiatz bat jasotzen hasi ziren. Hasieran haiek bakarrik eta ondoren helduen laguntzaz. Hura bukatuta haurrek aureskua dantzatu

zuten. Eguna borobiltzeko elkartean 90 bat pertsona bazkaltzera elkartu ziren.

Etxarriarrak dozena bat minutuan jaso zuten 17 metro inguruko pago enborra. Iturmendiarrak euren langintza arratsalderako utzi zuten. 21 metroko pagoari beste 3 bat metroko pinua gehitu zioten eta hura guztia jasotzeko 35 bat minutu behar izan zituzten.



Ziordiako txikiak helduen laguntza behar izan zuten maiatza jasotzeko. UTZITA

CITROËN

HAPPY ;DAYS

CITROËNEN AUKERAREKIN BAIKORTASUNEZ BETE

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN C4
PURETECH 110 LIVE EDITION 13.600€* -GATIK

CITROËN C4 AIRCROSS
HDi 115 SEDUCTION 19.500€* -GATIK

8 URTE
CITROËN ASISTENCIA
Matura eta lurriguetan
doako laguntza!

CITROËN nahago du TOTAL. *Aholakuta PSP Citroën C4 PureTech 110 Live Edition eta C4 Aircross HDi 115 S&S 6V 2WD Seduction (zergak, garraioa eta eskaintzak barne), bere izenean zegoen kotxea ekartzen duten bezero partikularrendako eskaintza. 6.000€ko gutxiengo finantzazioa eskatzen dutenak Banque PSA Financieren bidez 36 hilabeteko iraupena izango dutenak, C4aren kasuan: Citroën Premium produktorekin finantzatuta eta Essentialdrive berme komertzialeko luzapena kontratatuta, gutxienez 2+1 edo 40.000km arte (lehen suertatzen dena). Hilabeteko ordainketarekin, 36 hilabetekoko zerbitzu minimoaren derrigorrezko iraunkortasunarekin. PSP finantzaketa ez duten bezeroendako. Citroën C4 15.200€ eta C4 Aircross 20.700€. Hilabete akabera arteko epea parte hartzaileen salmenta tokietan. Eskaintza ez bateragarriak. Aurkeztutako modelok: C4 Exclusive eta C4 Aircross Exclusive. Baldintzak www.citroen.es, automóviles Citroën España, S.A. c/Dr. Esquerdo, 62 - 28007 Madrid. CIF: A-8284473

KONTSUMO MIXTOA (L/100KM) / EMISION CO₂ (G/KM): CITROËN BERRIA C4: 3, 6 / 5, 1 - 95 / 117 CITROËN C4 AIRCROSS: 4, 6 / 5, 0 - 119 / 132

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

>> Olatzagutia

Absoluzioa Salinasendako

Segiko kide izateagatik Espainiako Auzitegi Nazionalen epaitu zuten eta fiskalak harendako sei urteko espetxe zigorra eskatzen zuen

Herenegun jakinarazi zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak 28 gazte independentisten auziko epaia. Haietatik zazpiti sei urteko espetxe zigorra jarri die auzitegiak. Epaiketan fiskalak hamabiri akusazioa kentzeko eskatu zuen eta haien artean zegoen Ainara Ladron arbizuarra. Epaileek orain beste bederatziti gazte absolbitu dituzte eta horien artean dago Imanol Salinas olaztiarra.

Guztiei Segiko kide izatea eta,



Imanol Salinas eta Ainara Ladron, lagunez inguratuta.

beraz, “erakunde terroristako kide” izatea leporatu zieten (hala izendatuzuten Segi 2007an). Fiskaltzak gaz-

teen kontrako zigor eskaerak haiei inkomunikazio aldian hartutako deklarazioetan eta auzitegi berak

garagarrilean absolbitu zituzten 40 gazteen deklarazioetan oinarritu zituen. Deklarazio horiek torturapean atera zizkietela salatuzuten gazteek epaiketan zehar (irailaren 22tik abenduaren 19ra)

Sakandarrak

Imanol Salinas Ijurko 2010eko lastailaren 22an atxilotu zuten Olatzagutian. Espetxean urte bat eta hiru hilabete eman ondoren, 30.000 euroko bermea ordainduta 2012ko ilbeltzaren 18an utzi zuten aske. Loiolako aske gunean atxilotu eta beste hilabete eman zuen espetxean udazkenean. Ainara Ladron sarekada berean atxilotu zuten Elgoibarren. 17 hilabete egin zituen behin-behinean espetxean.

>> Etxarri Aranatz



Sabotajea trenbidean

Ostiralean, 16:30 aldera, trenbideko katenariako kableei eusten dieten kontrapisuak moztu zituzten Etxarri Aranatz. Aurretik Agurainen ere antzeko zerbait gertatu zen. Sabotajearen ondorioz, Renfek tren zirkulazioa eten egin behar izan zuen, haiek ibiltzeko behar bezalako argindar hornidurarik ezin zutelako jaso. Konponketak sei ordu iraun zuen eta trenbidea 23:00etarako erabilgarri gelditu zen. Guztira 500 bat bidaiariri eragin zien sabotajeak.

>> Etxarri Aranatz

Aztnugal ez ikertzeagatik Europak Espainia zigortu du

Patxi Arratibel Gartzandiaren tortura salaketa ikertu ez zelako Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Auzitegiak Espainia zigortu du

Ekimen kontrako sarekada batean atxilotu zuten Patxi Arratibel Gartzandia 2011ko ilbeltzaren 18an. Inkomunikatuta egon zen bost egunetan hainbat aldiz buruan poltsa jarri ziotela eta kolpe ugari eman zizkietela salatu

zuen etxarriarrak. Baita senide eta hurbileko lagunekin mehatxu ugari egin zizkietela eta bortxatzeko eta elektrodoak jartzeko imintzioak egin ziotela ere. Etxarriarrak polizi deklarazioan, bere sinaduraren ondoren aztnugal idatzi zuen. Hau da, laguntza atzekoz aurrera idatzita. Arratibelek epaileari jakinarazizion “babesik gabeko egoera izugarri horren aurre-



Xafanen askatasuna eskatzeko egin zen manifestazioa. ARTXIBOA

an, tortura saio gogorren erdian, laguntza behar zuela”.

Iruñeko Auzitegiak ez zuen salaketa aintzat hartu eta, ondoren, Nafarroako Probintzi Auzite-

giak eta Espainiako Konstituzio Auzitegiak helegitea atzera bota zuten. Estrasburgorako zuen Arratibelek eta orain arrazoa eman dio auzitegiak. +www.guaixe.eus

>> Olatzagutia

Urbizu iheslaria Mexikon atxilotua

Atzo herri batzarra egin zen Olatzagutian eta hilaren 17rako manifestazio deialdia egin dago

Haren kontrako estradizio agindua rekin, Hilario Urbizu San Roman iheslari olaztiarra Mexikon atxilotu zuten atazkenean. Espainiako Barne Ministerioak jakinarazi du-

nez, olaztiarra atxilotzeko nazioarteko agindua eman zuen Espainiak Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 1. epaitegiak. Atxiloketa Guardia Zibilak eta Mexikoko Polizia Federalak elkarrekin egin dute.

Azken urteetan gaixotasun larria izan du eta atxiloketak bere

osasun egoera arriskuan jarri deza keela eta kezka azaldu dute gertukoek. Atxiloketaren inguruko informazioa zabaltzeko biharko, 19:30ean, herri batzarra deitua dago Olatzagutian. Eta *Hilario askatu! Iheslariak etxera!* lelopean maiatzaren 17an, 19:00etan mani-

festazioa egingen da Olatzagutian.

Sortutik adierazi dutenez, “konponbidean ahaleginak egin beharrean konponbidea oztopena helburu duen estatu baten aurrean gaude, herritik eta nazioartetik indarrak biltzen eta presio soziala indartzen jarraitzea dagokigu gatazkaren ondorioz kartzelan eta ihesean dauden denak etxean izan arte”.

SAKANA

ETAren biktimen lekukotza dokumentalean

Testigantza ematen dutenen artean Jose Ignacio Ulaizarrena, 1979an Etxarri Aranatz hil zuten Salvador Ulaia alkatearen semearena, eta Jose Aguilarrrena, 1988an Altsasun zauritu zuten guardia zibilarena, daude, beste bederatzirekin batera

Nafarroako Gobernuak sustatuta *Berunezko kontakizunak* proiektua koordinatu zuen Javier Marrodan kazetariak. Hiru liburutan eta web orri batean ETAren jardunak Nafarroan utzi duen arrastoak jaso nahi izan du. Lan horretan oinarrituta Navarra Telebisi-
onek *Relatos de plomo* dokumentala



Dokumentalean Jose Ignacio Ulaizarrena lekukotza ikus daiteke.

egin du, atzo Iruñean mustu zena. Nafarroako Gobernuko eledun

Juan Luis Sanchez de Muniainek azaldu duenez, “ETAren 11 bikti-

www.relatosdeplomo.es

Dokumentala osorik eta testigantzak bana-
kaikusteko aukera dago. Baita Berunezko Kon-
takizunak proiektua ezagutzeko aukera.

ma terrorismoak Nafarroan eragindako ondorioei buruzko dokumentaleko protagonistak dira”. Eledunak gogora ekarri du *Berunezko kontakizunak* proiektuaren helburu nagusia “iritzi publikoari eta, bereziki, belaunaldi berriei, demokrazia, tolerantzia eta errespetua era aktiboan defendatzeak zer garrantzi duen helaraztea dela, gorrotoaren inguruan ez hezteko eta indarkeria tresna politiko modura ez justifikatzeko”. Haien lekukotza funtxeskoa dela gaineratu zuen. +www.guaixe.eus

>> Altsasu



CC00ren egoitza pinturaz zikinduta.

Pintura CCOO, UGT eta bankuen egoitzen kontra

Maiatzaren bateko goizaldean ezezagunek UGT eta CCOO Altsasun duten egoitzen kontra pintura bota zuten. Gauza bera egin zuten banku eta kutxen sukurtsaletan. Altsasuko Geroa Bairen Herrigunak erasoengatik “erabateko gaitzespena” azaldu du. Geroa Baitik azaldu dutenez, “adierazpen askatasunaren aldekoak gara, erabat Hala ere, horixe modu zibikoan aldarrikatzearen aldekoak gara, eta inolaz ere ez gisa honetako ekintza onartezinen bidez”. Halako gertakariak “erasotutako eraikinetako bizilagunez aparte”, altsasuar guztiak “gal-tzaile” egiten dituela adierazi du koalizioak, “Altsasuren irudia zipriztintzen eta zikintzen baita”. Geroa Bai Altsasuren alde lanean “errespetuz aritzearen alde” agertu da. PSNk erasoak gaitzetsi egin ditu eta “ideiak era baketsu eta demokratikoan defendatzen dituzten bi sindikatuekiko errespetua” eskatu du. Elkarbizitzaren oinarria “errespetua” dela eta halakorik ez dutenek “aniztasuna zer den ez dutela ulertzen erakusten dute”. Maiatzaren lehenak “adierazpen askatasunetik jardunaldi aldarrikatzailea” izan beharko litzatekeela adierazi dute sozialistek.

Olatzagutia



Udan Euskaraz kanpainarako izen ematea zabalik

Gaurtik hilaren 18ra arte eman daiteke izena 948 217012 telefonora hots eginez

Olatzagutiko Udalak udako euskarazko aisialdi programaren eskaintza zehaztu du: garagarriaren 23tik garilaren 17ra arte izanen dira. D eta Bereduetan ikasi eta 2003 urte-tik 2010era, biak barne, jaiotako haurrek eman dezakete izena Udan Euskaraz kanpainan. Beste hizkuntza-ereduetako ikasleek ere parte hartzeko aukera izanen dute gutxienez zazpi kidekotaldeasortzen bada. Izen ematea egiten den telefono beraren bidez egin daiteke ordainketa, bestela udalaren kontu korrontean sartu beharko da dirua. Betiere, izen emate epea zabalik dagoen bitartean. Parte-hartzaile bakoitzak 34,3 euro ordaindu beharko ditu. Familia bereko haur bat baino gehiagok izena ematen duen kasuan 57,2. Ordainketetatik salbuetsiak egonen dira egoera ekonomiko larrian dauden familiak. Horretarako, sendiek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari txostena eskatu eta harekin batera ez ordaintzeko eskaera egin behar diote udalari. Haur guztiak onartu ezin badira eroldaren araberako lehentasuna segituko du udalak.

Informazio bilera
Maiatzaren 12an, asteartean, 15:30ean Akelarre ludotekan.

Altsasu

Musika eta dantza eskolan matrikula zabaltzear

Astelehenean zabalduko du Altsasuko Udal Musika eta Dantza Eskola heldu den ikasturterako matrikula epea, hilaren 25era arte zabalik egonen dena. Euskal dantza ikasketekin batera musika adar ofizialean eta ez-ofizialean izena emateko aukera izanen dute interesatuek. Izena eman edo informazioa nahi duenak eskolako egoitzatik pasa daiteke (asteleheneetik ostegunera 15:00etatik 20:00etara edo ostiralean 9:00etatik 14:00etara) edo 948 564 581 telefonora hots egin. Musika ikasketa eskaintza: txistua, gaita, alboka, eskusoinua, trikitixa, klarineta, biolina, gitarra, gitara elektrikoa, baxu elektrikoa, tronboia, bonbardinoa, tuba, saxofoia, zeharkako txirula eta kantua.

Altsasu

Kulturarteko Zelandia

Altsasuko eskolak gurasoei zuzendutako kultur arteko astea hartuko du asteleheneetik aurrera. Ikasleek kultur aniztasunari buruzko jarduerak atzo eta heldu den asteazkenean izanen dituzte

Zelandi ikastetxeko amen topaketa batean kultur artekotasuna lantzeko ideari tiraka sortu da heldu den asteko Aniztasunaren Astea. Ikastetxeko ama talde handi bat gogotsu aritu da antolaketan, Gizarte Zerbitzuen eta Immigrazio Zerbitzuaren laguntzaz. Hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonen arteko hurbiltzea eta erlazio pertsonalak sustatzea du helburuak asteak. Aldi berean, ikastetxeak berak duen kultura aniztasuna islatuko da.

Gurasoendako egitaraua
Heldu den astean, 15:00etatik 16:30era, Zelandiko gurasoek hitzorduak dituzte. Astelehenean munduko ospakizunak izanen dira hizketa gaia. Asteartean, munduko hizkuntza eta ikastetxeak. Ostegunean, munduko ipuin eta kondairak eta, despeditzeko, ostiralean, munduko jakia.



Kulturartekotasun astea antolatzen ibili diren zelandiko irakasleak, amak eta teknikariak.

Ikasleendako
Zelandiko ikasleek atzo eta heldu den asteazkenean kultur aniztasuna islatzen duten bost txoko izanen dituzte ikastetxean bertan. Guztiak ere haietatik pasako dira. Lehena haiek etxetik eramandako objektuekin osatutako erakusketa da. Objektuekin batera nongoa den eta bere erabilera azaltzen duen fitxa dago. Handik gertu, beste txoko batean, zazpi gurasok txiki- kien izenak beste horren beste

hizkuntzetara itzuliko dituzte, aukera dagoenetan behintzat. Henna txokoan edertasun teknika horren inguruko azalpenak entzunen dituzte eta hennaz gorputz atalak nola margotzen diren ikus- teko aukera izanen dute ikasleek. Ikastetxeko 440 ikasleek eskumutu- rreko bana eskuratuko dute laugar- ren txokoan. Bulgarian maiatza- ren batarekin batera banatzen omen dira halakoak eta aurreneko zikoi- na ikusi arte ez dute kentzen.

Azkenik migrazioen mapen txo- koa dago. Nafarroa, iberiar penin- tsula eta munduko hiru mapa jarriko dituzte eta ikasle bakoitzak bere sendiaren jatorria eta Altsa- su lotu beharko ditu gometxa eta arien bidez. Familiak ibilitakoa islatuko da horrela. Hala ere, ikas- leek euren ekarpena egin dute. Esaldi bat hainbat hizkuntzatan eman dute eta paretetan itsasi. Eskulane-kin aniztasuna ere zabal- duko du.



El Martinet eskola. UTZITAKOIA

Ripolleteko eskolako hezkuntza esperientzia dokumentalean

Asteazkenean, 18:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean El Martinet eskola publikoari buruzko dokumentala aurkeztuko dute egileak eta hango bi irakasleak

Marc Bonasek eta Alfredo Hoyuelos ihabardarrak zuzendutako *Verd Dolc Jazz, tres mirades vers El Martinet (Berdea, Gozoa, Jazza, El Martinei buruzko hiru begirada)* doku- mentala ikusteko aukera izanen da. Ripolleten (Bartzelona) dagoen eskola publikoaren izaera eta fun- tzionamendua azaltzen du doku- mentalak. Xabier Unanua irurtzun- darrak editatu du dokumentala. Hoyuelosek NUPeko irakasle- ikasketako eta Iruñeko udal haur eskoletako arte tailerretako irakas- lea da. Duela 10 urte izan zuen El Martinet eskolaren esperientzia- ren berri; “erabat harritu nin- duen haien pentsamenduak, hau-

rren nahia errespetatzeak, ez libu- rurik ezta klaserik izateak, irakas- leek txaparik ez ematea, ez zigo- rrikeria ezta etxeko-lanik ez izatea eta haurrek nahi duten tokian egote- ko aukera izatea”. Dokumentalean “proiektuaren sorrera eta hari buruzko hiru ikus- puntu ematen ditu dokumentalak: irakasle, guraso eta haur banare- na”, azaldu digu Hoyuelosek. Azken horiek bakoitzak adin tarte bat isla- tu du. “Eskolak hartutako arrisku bera hartu nahi genuen dokumen- talean horregatik modue sperimen- talean grabatu genuen”. Eta hiru kameralariez profesionalekin osa- tu dute dokumentala. Batean eta bestean eman dute eta emanaldi ondoren sortzen den eztabaida oso aberasgarria dela azaldu digu Hoyuelosek.

Etxeberri / Arakil

Bide Berdeen Eguna oinez

Halaxe ospatu zuten hainbatek igandean Bide Berdeen Eguna, Pla- zaola bide berdeko tarteren bat oinez eginez. Haietako batzuk, egu- raldia lagun, Etxeberritik Lekun-

berrira arteko 15 km-ak ibili zituz- ten. Helmugara iristerakoan Pla- zaola Turismo Partzuergoak eskai- nitako mokaduez eta jardueraz gozatzeko aukera izan zuten.



Etxeberritik abiatu eta Lekunberrira arteko bidea egin zuten. PLAZAOLA.ORG

PPSOE,

ETB

digitala

Nafarroan

orain!

Berria erosi taldea

sorgiñak

taberna

LAKUNTZA

948 576 357

SAKANA

Sindikatuak aldarrikapenak kalean

Ostiralean, Langileen Egunean, sindikatuen aldarrikapenak ozen entzun ziren kalean. ELAk ekitaldi nagusia Bilbon egin zuen eta sindikalgiaren balioa aldarrikatu zuen, “kontra boterea” aldarrikatu zuen, “oztopo baikara identitate kolektiboak suntsitu nahi dute-nendako”.

Gizarteko oinarritzko orekak ez desagiteko lan egiten ari direla nabarmendu zuen. Horretan lanegiteko “antolakuntza eta boteresindikala” beharrezko jo zituen ELAk. Ekonomia hazkundea izan edo ez, ezberdintasunak handiagoak direla nabarmendu zuten ELA kideek. Nafarroari dagokionez, aldaketa sigla txandakatze hutsa baino zerbait gehiago dela azaldu zuen Txiki Muñozek.

LAB sindikatuak deituta, ehunka pertsona bildu ziren maiatzaren lehenaren harira Altsasun deitutako manifestazioan. Langileok borrokan, Euskal Herria eral-



Sakanan deialdia egin zuen bakarra LAB izan zen.

daketa bidean. *Gora maiatzaren lehen*a leloa zuen. Sakanako LABeko arduradun Gaizka Uhartek adierazi zuenez, “kapitalak eragindako krisiak krisi soziala eragin du eta erreformek eskubideak suntsitu dituzte”. Aldi berean, krisiaren kudeaketa “iruzurra” dela

salatu zuen.

LAB eredu sindikala birpentsatzen ari dela azaldu zuen eta horren bionarri azaldu zituen: euskal langile klasearen tresna izatea eta euskal lurraldeetan zabal dutako prozesu politikoetan inplikatzeko. Uhartek sindikatuaren 40 urteu-

rrena gogoan izan zuen eta sindikatuko militante guztien jarduna aitortu zuen. Bestalde, bildutakoek “sistemaren ondorioz galdu ditugun Javi Paniagua eta Miren izan zituzten gogoan.

UGTk eta CCOOk elkarrekin Iruñean egin zuten manifesta-

zioa. Egungo ekonomia politika eta austeritatea bukatzeko beharra azpimarratu zuten. UGTko buru Jabier Lekunberrik esan zuenez Nafarroan ere prekarietatea eta ezberdintasun soziala handitu direla. Bere proposamenak izan ziren: “aldarrikapena, borroka, kalitatezko enpleguaren aldeko apustua, soldata bidez erosahalmena hobetzea eta inbertsio publikoa handitzea”.

“Krisiaren aitzakian” murrizketen bidez ongizate eredu eraisten ari direla salatu zuen CCOOko Raul Villarrek. Gaineratu zuenez, “gizartean ezberdintasunak handitu dira, gizartearen hauskortasuna eta pobrezia erortzeko arriskua handitu egin da, eta gero eta pertsona gehiagori eragiten dio”.

Ostiral arratsaldean, bestalde, makina bat gazte elkartu ziren Altsasun *Erregimena zapalduz, alternatiba eraikiz* leloa zuen manifestazioan.

Udal hauteskundeak

>> Arakil

EH Bilduk 21 neurri eta suspertzeko estrategia ditu programan

Herritarren ekarpenak jasota egin du Arakilgo EH Bilduk bere programa, “herritarren ekarpen eta parte hartze zuzenik gabe ezin baitugu amesten dugun Sakana eta herria eraiki”. Arakildarren ekarpenekin osatutako hauteskunde programan EH Bilduk 19 proposamen zehatz jasotzen ditu, honako arlotan banatuta: euskara, etxebizitza, ingurumena, irakaskun-

tza, prestakuntza, kultura, turismoa, ondarea, gizarte politika eta sozio-ekonomia.

Azken arlo horretan, eta Sakanako Plan Estrategikoan oinarrituta, EH Bilduk Arakil ekonomikoki suspertzeko estrategia azaltzen du bere programan. Modu parte-hartzailean aurrera eramantzen duten egitasmoa, “bideragarria, jasagarria eta iraunkorra”

izan dela dio. Amalur egitasmoaren barruan lehen sektoreko ekoizpen organikoa, artisautza eta energia berdeak jaso ditu. Sakana aisigunea atalean, berriz, besteak beste ostalaritzako eta natur baliabideak aipatzen ditu.

Arakilgoaz aparte, Sakanarako herri programa ere egin du EH Bilduk. Izan ere, “herriok gure kabuz,



bakarrik, egin ezin duguna bailara mailan indarrak bilduz egin dezakegulako; ez bakarrik jada ditugun zerbitzu edo sortu behar-

ko ditugunei begira; hor dugu Sakanako Plan Estrategikoa, gure bailarak garapen sozio-ekonomikoa izan dezan”.

>> Uharte Arakil

EH Bilduk parte hartzearekin aurrera egiteko programa aurkeztu du

Larunbatean udaletxean aurkeztu zuen Uharte Arakilgo EH Bilduk bere hautagaitza. Jendaurreko ekitaldian egindako lanaren errepaso eta aurrera begirako herri-programa aurkeztu zuten. Hantzen uharterek herriari eta programari buruzko galderak egin zituzten eta koalizioko hautagaiek erantzun zieten. Programa prestatzeko 6 batzar eta 40 uharteren parte hartzea izan dutela jakinarazi dute EH Bildutik. Uhartarako ekarpenak egiteaz aparte, koalizioaren Sakanako programarako ekarpenak ere egin zituzten.



EH Bilduk Uhartarako aurkeztutako programa gai hauek ardatzen dute: udala parte hartzea bultzatzeaz aparte, garden eta herritarrengandik gertu kudeatzea; herriko ondare material, kultural eta naturala herriaren aktibo bilakatzea; garapen integral bat bultzatzea eta egoera ekonomiko kaxkarrari aurre egitea. Egitasmo zehatzen artean koalizioko kideek zerrendatu zituzten: baso plana; udal plana; Zerradoa, Itxesi eta herriaren arteko harresiak apurtzea eta auzolanean egindako kultur etxe baten

HAUTESKUNDE AGENDA

Adolfo Araiz. Maiatzaren 8an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Foru plazan. EH Bildu.

Zer hobetuko zenuke Altsasun? Programan parte hartu. Maiatzaren 8an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Goazen Altsasu.

Kanpaina hasierako kartel jartzea. Maiatzaren 9an, larunbatean, 00:00etan Etxarri Aranatzan. EH Bildu.

aldeko apustua.

Larunbateko aurkezpenean koalizioko kideek adierazi zuenez, “hemen erabaki nahi dugu eta horretarako hautatuak diren zinegotzi guztiak Uharte Arakilengatzea oso garrantzitsua izanen da. Udaletxean ez ditugu aulki hutsak behar; PPK utzi dituen moduan”.

» Arruazu / Sakana

Kulturantzitasun txangoa

Igandean, 9:00etan, Uharte Arakilen jarri du hitzordua Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak

Jatorri ezberdinetako sakandarrak elkar ezagutu eta, aldi berean, Sakana bera ezagutzeko aukera izanen da etzi. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak sakandarrak igandeko txangoan parte hartzera gonbidatu ditu. Nork bere

Egitaraua

- 9:30ean Uharte Arakilgo plazatik Zamartzera.
- 10:00etan Zamartzera bisita.
- 12:30ean Hamaiketako Aldabako San Sebastian ermitan.
- 13:30ean Ongi etorria Arruazura.
- 14:00etan Bazkaria Arruazuko plazan.
- 15:30ean Jolasak.
- 17:30ean Etxera itzulera.

jan-edanak eraman beharko ditu.



Kulturarteko txangoak sakandarrak eta ibarra ezagutzeko aukera ematen du.

» SAKANA



Bildutako jaki sorta batzuk.

Elikagai bilketa handia prestatzen

Maiatzaren 29an eta 30ean egingen du bilketa Nafarroako Elikagai Bankuak. Maiata akaberako bilketa behar bezala egiteko boluntarioak lanean hasi dira. Baina esku gehiagoren laguntzari ongi etorria egingen diote

Olio, arrain-, haragi- eta barazki-kontserbak, lekaleak, gailetak eta kakao disolbagarria. Horiek dira Nafarroako Elikagai Bankuak hileko azken asteburuan jaso nahi dituen jakiak. Premia larria duten pertsonen artean banatzeko dira jaki horiek. Eta eskasian bizi diren pertsonak direnez eta energia-pobrezia dutenez, jakiak prestatzeko energia kontsumo handia eskatzen ez duten jakiak ematea eskatu dute bankutik. Jakiak eman beharrean Nafarroako Elikagai Bankuari dirua ematen diotenek heldu den urteko errenta aitortpenen %40ko kenkaria izanen dute.

» Altsasu

Urtzi tabernari 25 urteurrenako aitortza

Nafarroako Ostalaritza Enpresa Txikien Elkartek, ANAPEH, 25 urtez elkarteko kide diren bazkideak omendu zituen herenegun. Aitortza jaso zuten tabernen artean Altsasuko Foru plazan dagoen Urtzi taberna dago. Elkarteko zuzendaritzako kideek Jose Migeli eta Anari oroi-garri gisa plaka bat eman zieten.

» Altsasu

Egitaraua

- » Maiatzak 8, ostirala
- 17:30ean Programaren aurkezpena.
- 18:00etan Patata tortilla lehiaketa.
- 21:00etan Ping-pong, futbolin eta billar txapelketak.
- » Maiatzak 9, larunbata
- 17:00etan Mural margotzea, Itziar Nazabalek lagunduta.
- » Maiatzak 10, domeka
- 17:30ean 3x3 saskibaloia.
- 18:00etan Sukaldaritza.
- » Maiatzak 11, astelehena
- 19:00etan Hermosa juventud filma eta foruma, Iortian.
- » Maiatzak 14, osteguna
- 18:00etan Dantza erritmikoa eta yoseikan budo.
- » Maiatzak 15, ostirala
- 19:00etan Iñaki eta Joneren kontzertua.
- » Maiatzak 16, larunbata
- 17:30ean Mus txapelketa, 16 urtetik gorakoendako. 5 euro bikoteko.
- 21:30ean Afaria.
- 23:00etan Garabatos taldearen kontzertua.



Gazte taldea herri gunerako bidean. ARTXIBOA

Bueltan da G2A

Intxostiapunta gazte txokoa ekitaldiz beteko du prestatutako egitarauak

Intxostiapunta gazte txokotik pasatzen diren gazteek ez dute asperetzeko betarik izanen hurrengo

egunetan. Gazte 2 Aste (G2A) egitaraua ekitaldi ugari jaso ditu haiei begira. Azken eguneko mus txapelketa eta afaria salbu, guztiak doan direla jakinarazi du Gazteria Sailak.

»

Ikasleen kontzertu erraldoia

Altsasuko Mikel Donea eta Barañaingo Alaitz institutueta 300 ikaslek kontzertu ederra eskaini zuten atzo arratsaldean Iortia kultur gunearen aurrean dagoen plazan. Eguraldia lagun, dantza batekin eman zioten hasiera eta ondoren txirulari saldo batek ongi ikasiak zituzten 10 abesti ezagun jo zituzten.



» Iturmendi

Maiatzaren itzalean, festa

San Migelak ospatuko dituzte bihar iturmendiarrak. Azken urteetan ohi denez, Eztanda Irratiak eta Ximona

gaztetxeak bezperarako, gaurko, egitarau propioa prestatu dute. Baita biharko herri kirolak eta gaupasa

Egitaraua

- » Maiatzak 8, ostirala
- 19:00etan Pintxo potea eta kalejira gaitariekin.
- 22:00etan Afaria Aitzkozar elkartean.
- 23:30ean Kontzertuak Aritzagan: Asalto, Ludovaina eta Eskozor.
- » Maiatzak 9, larunbata
- 13:00etan Auzatea

- 13:00etatik 14:30era Dantzaldia Dj Aretarekin.
- 18:00etan Herri kirolak.
- 20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Dj Aretarekin.
- 00:00etatik 03:00etara Dantzaldia Dj Aretarekin.
- Gaupasa elkartean eta gaztetxean.
- Egunean zehar auzoan Iturmendiko argazkien erakusketa.



Plaza festaren ardatza izanen da.



Nonerabili

MARI JOSE ILEAPAINDEGIA

ARBIZU
Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN
%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

EROSKI BIDAIAK

ALTSASU
%5eko beherapena, hiri hotelako eta garraio hutsen erreserbak izanez. Eskaintza ez metagarria

ARROXA LIBURUDENDA

ETXARRI ARANATZ
%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA

ALTSASU
100 €tik gorako erosketen-gatik 10 €ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik)

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU
0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO

ALTSASU
Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulantetan.

JAVIER AUTOESKOLA

IRURTZUN
% 10eko deskontua matrakulan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN
%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai





GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

948 197 070

www.tanatoriosirache.com



Anttoni Aldasoro
Milagros Artieda
Jose Ramon Anso
Jorge Ijurko
Iñaki Orce

Beti gogoan.

59ko kintoak



Jesus Arraiza Ongay

IV. urteurrena

Nahiz eta urruti egon,
gure bizitzan beti gertu sentitzen zaitugu.

Zure familia

Bere aldeko meza, maiatzaren 10ean goizeko 11:00etan, Lakuntzako San Salvador elizan izanen da.



Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275



GRUPO

Funeraria VASCONGADA

Ehorzketak

TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**

www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).
Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Etxarri Aranatzan. 83m erabilgarriak, oso eguzkitsua eta bista ederrekin, berogailua, berritua... 70.000 €. Tel 654 23 41 02

ERRENTAN EMAN

Pisua alokagai Lakuntzan. Gela bakarreko apartamentua, erdigunean. Altxariak eta bizitzeko beharrezkoak diren elementu guztiekin jantzita. 300 € hilabeteko errenta. Interesatuak 678 83 03 71 telefonora deitu.

Opatutakoak/ galdutakoak

GALDUTAKOAK

Belarritakoa. Apirilaren 12an, igandean, Etxarri belarritakoa galduta nuen, urte txurria, obaldua, txispa txiki batekin. Deitu 669 58 54 69.

Lehiaketa

Erromantzatuen koloreak. Nafarroako ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatuta da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa www.restauranteromanzado.com

Irurtzango festen kartela. Maiatzaren 29ra arte aurkeztu daitezke lanak. Haur maila (14 urtera arte) eta helduen maila daude. Informazio guztia: www.irurtzun.es

Pedro de Atarrabia. Kontakizun laburren lehiaketa, euskaraz eta gaztelaz. Informazioa Atarrabiko udalean: www.villava.es

Oharra

Odol-emeleak. Maiatzaren 13an, Etxarri Aranatzan, arratsaldean eta 21ean Olaztin, arratsaldean.

tsaldez.

Bertso-udalekuak. Euskal Herri osoko haur eta gazteek parte hartu dezakete bertso-udalekuekin. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsozale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

Axio. Jose Ignacio Flores buruzko dokumentala egiteko diru-laguntza eman nahi duenak ES04 3035 0112 00 1121055951 kontu korrantean edo www.karena.eu plataformaren bidez egin dezake. Informazio gehiago www.axioflores.com

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xalota telebista Iruñerrian euskaraz hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xalota-telebista-irunherria edo Iruñeko Karrikiri Euskal denda (Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudenda (kale Nagusia 54).

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren zuzendaritza. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru biltzaile hasi dute, Aholak behar duen lelopean. Ekarpenak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar du, lagundu zabalazten eta finantzatzen.

tzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrantean hartu daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak hantzen ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikari. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinikari) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezate.

Bazkideak Josefina Arregi klinikari. Bazkide izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com edo amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformaren laguntza. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68

9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoen zuzendaria eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako denda (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztiak, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehoak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idatzeko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eramane: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzen. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakana-

JAIOTZAK

- Ayun Lizarraga Ovejero,** apirilaren 16an Etxarri Aranatzan.
- Enar Rodriguez Atxa,** apirilaren 26an Etxarri Aranatzan.
- Aner Asa Agirre,** apirilaren 30ean Arbizun.

HERIOTZAK

- Simon Igoa Berastegi,** apirilaren 24an Etxarri Aranatzan.
- Lucia Flores Lanz,** apirilaren 28an Lakuntzan.
- Isidoro Arregi Amestoi,** apirilaren 30ean Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, hantzen jakinarazi dezala.

mank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunea (Burunda kaleko sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskaraz ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

PILOTA
ARBIZU LEKUNBERRIREN KONTRA, HERRI ARTEKOAN: Asteburuan hasiko da Nafarroako Herri Arteko Txapelketa. Arbizu eta Le-

kunberri elkarren kontra ariko dira Arbizun, gaur, ostiralean, 18:00etan, umeen, haurren, gazteen eta helduen mailan.

kirola >>

Txirrindularitza

Barranka taldearen aurkezpena

Gaur, 18:00etan, Altsasuko Iortia Kultur Gunean

Burunda Txirrindularitza Klubean aldaketak egon dira, kudeaketa hobe egiteko. Horrela, Burunda Txirrindularitza Klubak txirrindulariak trebatzen jarraituko du eta txirrindularitza probak antolatuko ditu, baina BTT sekzioko mendi txirrindulariek eta zikloturistek talde berria sortu dute: Barranka txirrindulari taldea. Hain zuzen ere gaur, ostirala, 18:00etan aurkeztuko da taldea, Altsasuko Iortian. Ohiko BTT eta zikloturismo irteerak antolatzeaz gain, hemendik aurrera Barrankataldeak antolatuko du Altsasuko BTT Zeharkaldia, aurten 20. edizioa izango duena eta V. Sakana-Burunda txirrindularitza martxa.

Mendia

Lizarrusti-Altzaga Sakanako Mendizaleekin

Igandean, 7:00etan abiatuko da autobusa eta sagardotegian bazkaltzera bilduko dira

Sakanako Mendizaleak taldeak antolatutako autobusa goizeko 7:00etan abiatuko da. Ondoren, Lizarrustitik abiatuko dira mendizaleak, mendian buelta ederra egin eta gero Altzaga herriira iristeko. Bertan sagardotegian bazkaltzera bilduko dira. Izena emateko hots egin 639 117 631 telefonora.

LAKUNTZA-AMEZKETA ALTSASUKOEKIN

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak mendi ibilbidea antolatu du, igandeko. Goizeko 7:00etan hitzordua jarri dute egoitzan. Helburua Lakuntzatik abiatu eta Amezketara heldzea da. Amezketan bazkaria egingo dute. Izena emateko: 648 143 615.

POL-POLERA IKASTOLEKIN

Ikastoletako mendi taldeak ikasturteko azken irteera egingen du maiatzaren 17an, Pol-Polera. Bi ibilbide egiteko aukera dago bertan. Egun osoko irteera da, autobusez. Izena emateko ikastoletatik pasa behar da.

Duatloia

Benjumea 38.a Bermeon

Larunbatean 38. Bermeoko Campos Duatloia-Rafa Memoriala jokatuko da (0,750 m igeriketan, 24 km bizikletan eta 5 km korrikan). 257 duatletek osatu zuten proba eta Jon Unanue (1:13:45) eta Tamsyn Moana-veale (1:22:02) izan ziren irabazleak. Saltoki Trikiak taldeko Felix Benjumea altsasuarra 38. a iritsi zen helmugara (1:22:13).

Mendia

Sakanako Ibilaldia, dena prest

Iratxo elkarteak antolatutako 26. Sakanako Ibilaldirako bi aukera daude: Ibilaldi luzea, ohiko norantzan (54 km) edo Ibilbide Motza (27,5 km). Larunbatean izanen da, goizeko 6:00etan luzekoak eta 7:30ean motzekoak

Irurtzungo Iratxo elkarteak antolatutako Sakanako Ibilaldia mendizaleek gorris markatuta izaten duten ibilaldia da. 26. edizioa izanen du aurten, eta maiatzaren 9an izanen da. “Lehen beti apirilaren azkeneko asteburuan egiten genuen, baina aurten maiatzaren 9a libre zegoen, Tafallako martxa ez dutelako egingen. Data atzeratzea erabaki genuen, eguraldi hobe egingo duen esperoan, azkeneko edizioetan eguraldi oso txarra izan dugulako” adierazi digu Sakanako Ibilaldiko arima nagusia den Pello Alzuetak.

Sakanako Ibilaldia faktore asko-erengatik da berezia. Euskal Herriko erdigune geografikotik pasatzen da (Olibesarioko saroian, San Donatotik gertu), Sakanako mendi eta paraje zoragarrietatik ibiltzeko aukera eskaintzen du, Beriain eta Aralar tartean, eta Nafarroako ibilbiderik luzeena, gogorrena eta zaharrena da. Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Ibilbide Luzeen Zirkuituan sartua dago.

Aurreko urtean, 25. edizioan, Ibilbide Luzea atzekoz aurrera egingen zuten, hau da, Trinitate-rantz abiatu ziren lehenbizi Txurregira joan ordez. Baina aurten ohiko ibilbidea berreskuratu dute. “Mendizaleek aipatu ziguten ohiko norabidea nahiago dutela, hauda, Txurregitik abiatu, Beriain igo, jaitsi eta ondoren Aralarreko San Migelera igo, Aralar zeharkatu eta Trinitatea azkenerako utziz. Eta guk kasu egin diegu” adierazi digu Iratxoko Doris Vicentek. Vicentek gaineratu duenez, Ibilaldi Motzaren ibilbidea berria izango da. “Gure helburua ingurunean dauden ibilbide laburrak eza-gutaraztea da”.

Zerbitzu guztiak
Ibilbide Luzean parte hartuko dutenak 6:00etan abiatuko dira,

Alzueta eta Vicente



Alzuetak eta Vicentek aurkeztu zuten aurtengo 26. Sakanako Ibilaldia, Rural Kutxa babesle nagusiko Irurtzungo bulegoko arduradun Sara Garciarekin batera. “Sakanako Ibilaldia oso ezaguna da Irurtzunen eta ingurunean eta halako ekitaldiak babestu behar direla uste dugu” nabarmendu zuen Garciak. Halaber, probak dituen beste babesle guztiei eskerrak eman zizkieten antolatzaileek, “ibilaldia antolatzea ahalbideratzen digutelako”.

Atakondoa pilotalekutik, eta Ibilbide Motzean ariko direnak 7:30ean, toki beretik. Gutxi gorabehera, ibilbide handia egiteko 10-11 ordu luze inguru behar izaten dira, bigarrena, ordea, sei orduren bueltan amaitu daiteke. Ibilbidea korrikan egingo duenik egongo da, baina kontrol guneen ordutegia errespetatu beharko dute, mendi ibilaldia baita Sakanakoa, ez mendi lasterketa.

Bi ibilbideetan horniketakarako guneak izango dira. Ildo honetan, birziklapenean ahal egingo da berezia egin nahi du antolakuntzak. Organikoak, paperak, ontzi arinak eta errefusa aparte bilduko dituzte, eta edalontziekin nola jokatu aztertzen ari dira. “Plastikozko 6.000 edalontzi inguru gastatzen ditugu eta hori gehiegizkoa da. Ea hauek ditako beste sistemaren bat jartzea lortzen dugun” nabarmendu zuten.

Izena ematea

Eguraldiak laguntzen badu antolakuntzak 800 mendizale inguru espero ditu. Aurreko urtean 1003 izan ziren, baina data berezia zen eta geroz eta mendi lasterketa eta proba gehiago daude. Aurretik izena emateko epea asteazkenean itxi zen eta XXXX lagunek eman zuten izena. Larunbatean, egunean bertan, goizeko 5:00etatik 6:00etara izena eman dezakete Ibilbide Luzeak eta goizeko 6:00etatik 7:30era Ibilbide Motzekoak (15 euro, langabeek 5)” azaldu dute. Bezperan etortzen direnek lo egiteko aukera izango dute Atakondoa ikastetxeko gimnasioan.

Ibilbidea bukatzen dutenak diploma jasoko dute, eta kamisetak beharrez, aurten Lorpen etxeko galtzerdiak. “Oso preziatuak dira mendizaleendako eta opari hori egin nahi diegu” azaldu dute. Gainera, mendiko materiala zoz-

www.iratxoelkartea.com
Probako informazio guzti-guztia eta izena ematea.

Sakanako Ibilaldia: Ibilbide Motza (27,6 km. 1300 m desnibela)

7:30ean abiatuta: Irurtzun - Urritzola - Gaztelu - Ekai (kontrola+hornidura) - Etxarren - Itxasperi - Usategiak - Goldaratz - Latasa (kontrola+hornidura) - Arrantzaleen ibilbidea - Irurtzun (kontrola+hornidura).

Sakanako Ibilaldia: Ibilbide luzea (54 km. 3388 m desnibela)

6:00etan abiatuta: Irurtzun - Urritzola - Gazteluko Lepoa - Txurregi - Iturria (hornidura) - Euskal Herriko Erdigunea (Olibesarioko saroian, N.42°52'59"). W.1°56'08 koordenada geografikoan) - Uharteko Ataka - San Donato (kontrola) - Aritza - Uharteko Arakil (kontrola+hornidura) - San Migel santutegia (kontrola+hornidura) - Atamadzotz (kontrola+hornidura) - Larrazpil - Goldaratz - Latasa (hornidura) - Trinitatea - Irurtzun (kontrola+hornidura).

ketatuko da.

50 antolatzailetik gora

Ibilaldi handiaren egunean bertan herritar andana ariko da laguntzaile lanetan, 50 lagun baino gehiago. Bi ibilbideetan horniketakarako guneak izanen dira eta Irurtzungo kiroldegian dutxarako aukera ere izanen dute. Pello Alzuetak aipatu duenez, aurten Euskal Herriko Mendi Ibilbideen Zirkuituan dauden ibilbideak baloratzeko aukera izango dute mendizaleek, Sakanako Ibilaldia barne. “Horrek hurrengo edizioei begira zer hobetu beharko den argituko digu”.

Herri kirolak

Herri kirolean gustura

Sakanako 168 ikasle XI. Herri Kirol Topaketan

Sakanako Mankomunitateak antolatuta, aurten Irurtzungo kiroldegia hartu zituen Sakanako ikastetxe arteko XI. Herri Kirol Topaketak. Hasieran Kañamarek anaiek trontza eta aizkora era-

kustaldia egin zuten, eta ondoren Sakanako ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek hartu zuten parte herri kirol proba konbinatuetan -txingak, zaku lasterketa, koxkolak, giza-plaza eta sokatira-, nahasita. Guztira 168 partaide lehiatu ziren herri kirol probatan, eta 17 irakasle aritu ziren koordinazioan.



Trontzan aritzera ere animatu ziren batzuk. UTZITAKOIA

Mendi lasterketak



Beraza eta Beregaña Eloko podiumean

Jose Luis Beraza laugarrena izan zen proban, bigarren beteteranoa, eta Beregaña hirugarren emakumea

7. Xtreme Higa Monreal:		
1.	Kiko Navarro	1:48:31
4.	Jose Luis Beraza	1:50:57
5.	Angel Arrieta	1:52:24
19.	Aitor Hernaiz	2:02:54
31.	Juanjo Armendariz	2:07:11
42.	Mikel Satrustegi	2:10:05
99.	Maite Beregaña	2:21:36
107.	Ion Zubiria	2:22:38
110.	Xabier Aizpun	2:22:56
113.	Xabier Zabalza	2:23:07
126.	Gorka Arratibel	2:24:44
170.	Asier Leiza	2:37:02
203.	Erkuden San Martin	2:44:01
213.	Ainara Martin	2:46:28
220.	Francisco Jose Juang	2:49:18

Elok 7. Xtreme Higa Monreal lasterketa hartu zuen igandean (21 km). 245 korrikalarik lortu zuten proba despeditzea, Kiko Navarrobuz zela (1:48:31). Navarrok minutu eta erdi aterazion Victor Amatriaini (1:50:04). Tedy Garzonek itxi zuen podiuma (1:50:47). 10 segundo eskasera sartu zen Jose Luis Beraza uhartearra (1:50:57), probako bigarren beteteranoa eta lehen sakandarra. Bosgarrena ere sakandarra izan zen, Angel Arrieta uhartearra (1:52:24). Emakumezkoetan Irene Guembe gailendu zen (2:20:29). Guembek lehia estua izan zuen Miren Anduezarekin, eta azkenean Guembek 9 segundo eskas atera zizkion Anduezari (2:20:38). Minutuek aserasartu zuen Maite Beregaña (2:21:36). Uharte Arakildarra probako hirugarren emakumea izan zen, lehen sakandarra.

Pilota

Irurtzungo Txapelketa Betelura

Igandean Beteluk hartu du Irurtzungo 23. Pilota Txapelketako jardunaldia. Jakina denez, aurten senior mailako pilotariak lehiatzen ari dira, 24 bikote guztira, eta Irurtzunen aparte, gertuko herrietan ere jokatuko dira partidak.

Aurreko asteko emaitzak:
Labaka-Arratibel **18** / Peru Labaka-Erostarbe **22**
Rekalde-Santxez **22** / Otxandorena-Irañeta **17**

Asteburuko partidak

Igandean, 11:30ean, Betelun:
Seniorrak:
Urbieta-Lizeaga / Cabrerizo-Beobide
Urretabizkaia-Mariezkurrena / Lansalot-Bergera

BTT -mendi txirrindularitza



Gartziandia 35.a Marokoko 10. Titan Deserten

Lakuntzarra basamortuko proba gogorreko lehen seniorra izan da

Larunbatean despeditu zen Marokoko 10. Titan Desert by Garmin BTT basamortuko mendi txirrindularitza proba, munduko gogorrenetako bat. 6 etapako lasterketa izan da, tartean Marokoko basamortua eta eremu gogorak zeharkatzen zituena. 600 txirrindulari aritu ziren, tartean profesionalohi handiak, eta bertan sakandarra bat lehiatu zen, Bartzelonan bizitokia duen Jabier Gartziandia lakuntzarra (Probike). Gartziandia profesionala izan zen 1988 eta 1991 urteen tartean, Rural Kutxa, Artiach eta Paternina Don Zoilo taldeetan. Argi dago izan zenak izaten jarraitzen duela, Gartziandiak maila bikaina eman duelako.

PODIUMERA IGO ZEN
Titan Desert by Garmin proba Zarabici Trek taldeko 31 urteko Diego Tamayo kolonbiarrak irabazi du (22:45:46), Jose Silva, Ibon Zugasti, Oscar Pereiro, Luis Pasamontes, Bram Rood eta Juan Pedro Trujillo faborit nagusiengainetik gailenduz. Jabier Gartziandia (Probike) sailkapen orokorrean 35.a sailkatu da (26:26:35), 3:40:46ra, senior mailako lehena. Txirrindulariek basamortuko eremu askotan GPS-arekin jarraitu behar izan zuten norabidea, eta aipatzekoa da proba 600 txirrindularietatik 483k despeditu zutela.

Areto futbola

Koxka Europako finalerdietan

Atzo Europako UEFA Cup txapelketako final laurdenetan Frantziako Romorantin taldeari irabazi zion Koxkak (7-5). Gaur, finalerdietan, Errusiako Rusland izanen du arerio

Koxka Taberna areto futbol taldea Lloret de Marren dago, Europako klubuen arteko UEFA Cup txapelketan lehiatzen. 12 taldek ekin zioten txapelketari astelehenean, 4 multzotan banatuta. D multzoan zegoen Koxka taberna, Txekiar Errepublikako SK Sico SC Jilemnice eta Armeniako DVIN taldeekin. Zoritarrez, Armeniako taldeak bisatuekin eta pasaporteekin arazoak izan zituen eta ezin izan zen estatuta sartu. Multzo bakoitzetik bi taldek egiten zuten aurrera, eta nahiz eta Koxka Taberna eta talde txekiarra final laurdenetara sail-

Areto futbola

Helburua: play-offak

El Pozoren kontrako play-offetako joaneko partida gaur jokatuko du Magnak, 20:30ean, Anaitasunan

Play-offetako final laurdenetan Magnak El Pozo Murcia izango du aurkari. Joaneko partida Anaitasuna pabilioian jokatuko da, gaur, ostiralean, 20:30ean.
El Pozo Murcia lehen mailako izarretako bat. Magnak baino aurrekontu askoz handiagoa dauka, hirukoitza ia. Baina Imanol Arregik zuzentzen duen talde berdea ez da oilarren aurrean kikitzen. Talde irurtzundarrak merito handia du, aurrekontu txikia-ekin eta harrobian sortutako jokalariekin seigarrena sailkatu baita ligan (52 puntu), orain arte lortutako puntu gehienekin.
Partida hasi baino lehen Ionan Intxusta haurra laguntzeko boletotxartelak salduko dira.

Txirrindularitza

Lacturale Trofeoa Asier Etxeberriarendako

Quesos Albenizeko txirrindularia bakarrik iritsi zen helmugara

Maiatzaren lehenean junior mailako Lacturale Junior Trofeoa jokatu zen. Txirrindulariak Etxeberriko Lacturale granjatik abiatu ziren, eta 71 km-ko lasterketa gogorren ondoren Goldaratz izan zuten helmuga. Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Asier Etxeberriak sekulako erakustaldia eman zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara (1:53:02). 6 segundora David Casado sartu zen, eta 39 segundora David Gijon. Proba irabazteaz gain, mendiko sailkapenean onena izan zen Etxebe-

Eseverri: 600



Magnako kapitain Javier Eseverri aurten bere 20. denboraldia jokatzen ari da Xota klubean. Talde berdearekin bere 600. partida jokatuko du otsagiarrak gaur, El Pozoren kontra. Xotak omenaldi beroa egin zion asteartean Eseverri, iruñean. Ekitaldian Magna Nafarroa Xotako jokalariguztiak, teknikariak, jokalariohiak eta Eseverriren senitarteko eta lagunak bildu ziren. Bere ibilbidea errepasatu zuten eta Tatono eta Imanol Arregik hitz ederrak izan zituzten kapitainarendako. Makina bat oroigarri eta opari jaso ondoren, Eseverrik esker oneko hitzak izan zituen guztiendako.



rria eta lehen urteko junior onena izan zen. Aritz Irigoien 30.a sailkatu zen, Gorka Arbizu 38.a, Nestor Baroja 44.a, Izai Mauleon 47.a eta Juan Alberto Jimenez 63.a.
+ www.guaixe.eus

Futbola

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa
31. JARDUNALDIA

ALTSASU 1 - ETXARRI ARANATZ 3
Dantzalekun jokatutako derbi sakandarreko hiru puntuak Etxarrira joan ziren. Mikelek Etxarri aurreratu zuen faltaz, baina bigarren zatia hasi eta berehala Altsasuk berdintzea lortu zuen, Riveroren golari esker. Baina pozak gutxi iraun zuen Altsasun, Javi Ruedak Etxarriren bigarrena sartu zuelako, askorendako joko kanpoko jokaldia izan zen jokaldian. Berehala Ruedak Etxarriren hirugarrena sartu zuen eta horrela despeditu zen lehia.

Sailkapena >>

1.	Etxarri Aranatz	74 p
10.	Altsasu	42 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - BERRIOZAR
(Igandean, 17:00etan, Etxarrin)
BETI KOZKOR - ETXARRI ARANATZ
(Larunbatean, 16:00etan, Etxarrin).

Futbola

Altsasuk jubenilak eta haurrak lehen mailara igotzeko borrokan

Jubenilen 2. mailako liga Doneztebek irabazi zuen (68 puntu). Altsasu izan zen bigarrena, 4 puntura (64 puntu) eta Etxarri 8.a (34 puntu). Horrela, lehen mailako igoera fasea jokatzeko sailkatu ziren altsasuarrak. Igandean Zizurren jokatuko dute, Ardoi taldearen kontra. Bestalde, haurren 2. mailan Gazte Berriak gailendu zen. Altsasu 3.a sailkatu zen, Etxarri 20.a eta Lagun Artea 23.a. Altsasu lehen mailara igotzeko sailkatu zen. Larunbatean Altsasuk Itaroa Huarte hartuko du, 11:30ean, Dantzalekun.
+ www.guaixe.eus

Kimuen Futbol 8 Topaketak

Igandean, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako Kimuen Futbol Txapelketako 17. jardunaldia jokatuko da Altsasun.

17. jardunaldia

Igandean, Dantzalekun
10:30ean: Urdiain - Mediolanum
11:30ean: Dantzaleku - Lagun Artea
11:30ean: Tipi Tapa - Txartel
12:30ean: Kaixo - Sayas
12:30ean: Arbizu - Sutegi

Saskibaloia

3x3 saskibaloia jardunaldia igandean Irurtzunen

11:00etan Irurtzungo kiroldegian

Sakanako Mankomunitateak antolatuta, igandean, maiatzaren 10ean, 3x3 saskibaloia jardunaldia hartuko du Irurtzunek. Sakanako Saskibaloia Jardunaldiaren parte hartuduten saskibaloia jokalariek nahasita lehiatuko dira, hiruko taldeak osatuta.

Irristaketa

Fernandez urrezkoa, Villalobos zilarrezkoa eta Chamorro brontzezkoa

Asteburuan Nafarroako Irristaketa Abiadura Txapelketako finalak jokatu ziren Lagunak klubean. Ioseba Fernandezek senior mailan irabazi zuen, Unai Villalobos haurren mailan bigarrena izan zen eta Ander Chamorro hirugarrena

Asteburuan Nafarroako Irristaketa Abiadura Txapelketako finalak jokatu ziren Barañainen, Lagunak klubean. Final hauek maiatzaren 30ean eta 31n Barañainen jokatu ko diren Espainiako Pista Txapelketarako puntuagarriak ziren. Sakana Irristaketa Klubak hiru ordezkari izan zituen, Ana Rita Correira eta Anne Lapuente, kimuen mailan, eta Ander Chamorro, haurren mailan. Horretaz gain, Ioseba Fernandez iturmen-diarra senior mailan lehiatu zen, Amaya klubarekin, eta Unai Villalobos ere lehiatu zen, beste hainbatekin batera. Guztiek sekulako



Chamorro, Correira eta Lapuente. UTZITAKOAK

maila eman zuten. Senior mailan Ioseba Fernandez izan zen garailea, Haurren mailan Unai Villalobos bigarrena sailkatu zen eta Ander Chamorro hirugarrena, erlojupekoan. Aipatu guztiek Espainiako Txapelketetarako sailkatzea lortu dute. Anne Lapuente

te 8.a sailkatu zen sailkapen orokorrean eta Espainiako Txapelketetan izanen da ere. Bestalde, asteburuan Iruñeko Antoniuttik Zirkuituko finala hartuko du. Larunbatean, 10:00etatik 13:00etara eta igandean 10:00etatik 20:00etara.

Pilota

Ezkurdiak Oinatz arerio eta Zubietak Altuna

Arbizuarra Iker Arretxe 6 tantotan uztetik dator eta etxarriarra astelehenean sartuko da lehian

Joseba Ezkurdiak primerako hasiera eman dio Buruz Buruko txapelketari. Oiongo pilotalekuan arbitzuarrak 6 tanto eskasetan utzi zuen Iker Arretxe. Hezetasunak zorua izotzezko pista irristakorra bilakatu zuen. Ezkurdia hobeto egokitu zen egoera horri, batez ere berak hartu zuelako, gehienetan, ekimena. Aldiz, Iker Arretxek tente mantentzeko arazoak izan zituen. Arretxek lehendabiziko errematea huts egin zuen, txapan bukatu zuen dejada, eta hortik aurrera hasi zen bere kalbarioa. Ezkurdiak sakea lortu zuen eta beste munduko ezer egin gabe 1-21 aurreratu zen, di-da batean. Bukerana, 6-22 irabazi zuen.

Oinatz Bengoetxea zain

Final zortzirenetan Joseba Ezkurdiak Binakako txapelduna du zain, Oinatz Bengoetxea. Partida larunbatean jokatu da, 17:00etan, Labriten (laSexta). Bengoetxea da faborittoa, Binakakoan eman duen maila ikaragarria oraindik pilotazaleen buruetan baitago. Baina arbitzuarra irabaztetik dator, Binakakoan finalerdietan kanpo geratu izanari buelta eman nahiko dio eta leitzarrendatzen saiatuko da. Ea arbitzuarrak final laurdenetara sailkatzea lortzen duen, Retegi Biren kontra aritzeko.

Zubieta Altuna IIIaren kontra Final hamaseirenetan Altuna III.ak 9-22 irabazi zion Binakako txapeldun Untoriari. Hortaz, Altuna III.a izango da Aitor Zubieta

Ezkurdia, ilusioz



“Entrenamenduetan sentsazioak onak dira eta lehendabiziko erronda irabazteak konfiantza ematen dizu” adierazi zuen arbitzuarrak material aukeraketan. “Oinatz oso pilotari arriskutsua da. Niri ilusio handia ematen dit bera bezalako pilotari baten kontra aritzea. Bera atzean mantentzen saiatu beharko naiz, dominatzen bazaitu Oinatz oso pilotari arriskutsua baita” adierazi zuen. “Joseba buruz burukoan jokatzeko dohain handiak ditu, bereziki bolea. Errespetu handiena izan behar zaio” azaldu zuen Oinatzek.

pilotari etxarriarraren arerioa final zortzirenetan. Partida astelehenean jokatu da, 16:30ean, Tolosako Beotibarren. Atzelari etxarriarrak bi aste eskaseko epea izan du buruz buruko prestatzeko, eta berak esan bezala atzelariendako konplikatuagoa da distantziara egitea, baina berea ematea espero du etxarriarrak. Gainontzeko partidatan, Xalax Rezusta izango du aurkari ostiralean Bergaran (22:00etan, ETB1) eta Beroiz Jaunarenaren kontra lehiatuko da igandean Zallan (17:00etan, ETB1).

>>



Olaztiko San Migel XLIV. Pilota Txapelketa aurrera

Aurreko asteburuan hasi zen Olaztiko San Migel elkarteak antolatutako XLIV. Pilota Txapelketa. Asteburuan 2. jardunaldia dago jokoan.

- Emailtzak:**
- 3. maila:** Lauzirika-Irisarri **18** / Alustiza-Gonzalez **14** JM Peral-A Peral **17** / Iñaki-Ibon **18** Asier-Victor **15** / Pleito-Ondatz **18**
- 2. maila:** Ansotegi-Joaq **5** / Borrega-Eneriz **18**
- 22 urtez azpikoak:** Urdanpileta-Elizegi **0** / Sevilla-Candela **18** Aramendia-Izkue **16** / Santxez-Mujika **22**
- 1. maila:** Zelaia-Alustiza **12** / Joseba-Unai **18** Etxague-Anguita **18** / Loban-Arbizu **6**

Asteburuko partidak

- Ostiralean, 20:00etan:**
- 3. maila:** Zubiria-Sergio / Urtzi-Grados
- 2. maila:** Beñat-Pablo / Muñoz-Insauti
- 22 urtez azpikoak:** Iturbe-Urrujola / Diaz de Heredia-Agirre
- Sevilla-Candela / Galartza-Arana
- Larunbatean, 17:00etan:**
- 3. maila:** Mendoza-Mendoza / Ieregi-Mundiñano
- Salinas-Aritz / Jokin-Muñoz
- 1. maila:** Garziandia-Lopez de Zubiria / Aiestaran-Vazquez
- Nogueira-Sueskun / Urteaga-Lauzirika

Gimnasia erritmikoa



Iskizako kimuak laugarrenak sailkatu ziren. UTZITAKOAK

Iskizakoak ongi taldekako txapelketan

Junior mailako taldea hirugarrena sailkatu zen eta kimuen mailakoa laugarrena

Larunbatean Nafar Kirol Jolasen Taldekako Nafarroako Txapelketako lehen fasea jokatu zen Mendillorin. Iskiza Sakana taldeko gimnastek lan bikaina egin zuten. Junior mailan 10 talde lehiatu ziren eta Iskiza hirugarrena sailkatu zen (15,233 puntu). Kimuen mailan ere 10 talde aritu ziren eta Iskiza Sakanakoak laugarrenak izan ziren (14,683 puntu). Maiatzaren 30ean txapelketako bigarren fasea jokatu da.



Semana inter-cultural

Aniztasunaren astea

2015eko maiatzak 11-15 15:00-16:30

الاسبوع الثقافي

ASTELEHENA 11 Munduko ospakizunak

ASTEARTEA 12 Munduko hizkuntza eta ikastetxeak

ASTEAZKENA 13 Txoko anitzak ikaslegoarentzat, goizez

OSTEGUNA 14 Munduko ipuin eta kondairak

OSTIRALA 15 Munduko jakiak

Semaine interculturelle

inter-cultural week

Седмица на международната култура

跨文化周

Altuna Zelaia

Altuna Zelaia

Altuna Zelaia

Altuna Zelaia

kultura >>

HAURRENDAKO ANTZERKI MUSIKALA: Ene Kantak taldeak haurrendako euskarazko kantu berriak eta freskoak sortzen ditu. *Oneka marrazoa* antzerki musikala sortu du eta etzi, 17:00etan Altsasun dago.

Komedia klasikotik joko du Altsasuko Amateur Antzerki Zikloak



Bihar hasita, hiru larunbatez, Lizarra, Tafalla eta Deikazteluko antzerki taldeen muntaiekin gozatzeko aukera izanen da

Tarima Beltza antzerki taldeak bosgarren urtez Teatreves, Altsasuko Amateur Antzerki Zikloa antolatu du. Taldeko kide Juan Manuel Herrero antzerkiaz gozatzera gonbidatu du jendea. Aurtengo ziklorako hiru obra klasiko, hiru komedia programatu dituzte.

Mertxe Herrerak azaldu digunez, publiko fidela du zikloak. Joan den urteko erantzunaz galdetuta “oso pozik” bukatu zutela adierazi du; “jendea kritikoa da eta antzezlanak komentatzen ditu”. Altsasuko ziklotik pasa diren taldeekin antzezlanaren ondoren auzatea egiten dute Tarima Bel-

tzakoek eta “denek publikoak egiten dien harrera nabarmentzen dute. Publikoarekin eta antzokiarekin oso pozik joaten dira”. Iritziak bisita koadernoan jasoak dituzte.

Biharko antzezpena

Lizarrako Kilkarak taldeak abiaraziko du erakustaldia. Jon Barbarin ihabardarrak zuzentzen du taldea eta antzezlanaren egokitzepea ere egin du: William Shakespeareren *Uda-gau bateko ametsa* obra. Greziaklasikoangirutako komedia erromantikoa da. Antzezlanean maitagarriak, gizarteko goi mailako eta behe mailako pertsonaiak dira protagonistak. Haien arteko elkar eraginetatik maitasun istorioak, ametsak eta magia sortzen dira. +www.guaixe.eus

Sariak

Zikloko antzezlanak bakoitzaren ondoren publikoaren artean bi zozketa egingen dira: Altsasuko Dendarien Elkartearen 30 euroko balea eta Xurru, Alde Zaharreko tabernarien elkarteak emandako ardo botilak.

Egitaraua

Sueño de una noche de verano. Maiatzaren 9an, larunbatean. Kilkarak.

El gran teatro del mundo. Maiatzaren 16an, larunbatean. Puntido teatro.

Tres sombreros de copa. Maiatzaren 23an, larunbatean. Atarapana.

Elai dantzari alaiak

Igandean, 12:00etatik aurrera Lakuntzan dantza

Lakuntzako dantza taldeak, Elai Alaik, bere eguna ospatuko du etzi. Eguerdian herrian barna kalejira egingen dute 57 dantzariak. Hainbat puntutan geldialdia egingen dute dantzaren bat eskaintzeko. Hala ere, dantza jaialdia kalejiraren akaberan izanen da, plazan. Hura despedituta taldekoen gurasoek zinean presatutako bazkaria izanen dute prest dantzariak. Halaxe osatuko da igandeko egitaraua.

Gaur egun Elai Alai dantza taldean 45 dantzari txiki eta dozena bathandi daude. Bitaldeetan mutilen falta dute, batez ere handien taldean. Dantzari txikiak ostegun arratsaldetan elkartzen dira entseatzera. Haiei dantzak Olaia Martiarenak eta Rebeka Cuevasek era-



kusten dizkiete. Dantzari handien taldea larunbat goizetan elkartzen da eta ez du irakaslerik oraingoz, horregatik, aurreko ikasturtean ikasitako dantzen errepasoa egiten ari da.

Lakuntzako dantzariak ez dira geldirik egon. Etziko herriko dantzaldiaz aparte, San Saastinetan, Lakuntzako Korrika txikian, Iruñeko Folk Lore Egunean eta Lesakako dantzari txiki egunean parte hartu dute. Arbizuko festetan dantzatuko dute ere.

Bere herrian profeta



Aitorpen hori egin zuen larunbatean Enrike Zelaiak, Haize Berriak bandak berari eskainitako omenaldian. Zelaiak gaineratu zuen euskal musikaren sustapenean egindako lanean beti aitortza jaso duela. Omenaldiagatik esker ona azaldu zion Burunda frontoia bete zuen publikoari. Txaloekin eta irrintziekin agurtu zuten emanaldi akaberan. +www.guaixe.eus

tza jaso duela. Omenaldiagatik esker ona azaldu zion Burunda frontoia bete zuen publikoari. Txaloekin eta irrintziekin agurtu zuten emanaldi akaberan. +www.guaixe.eus

Carrollen Alizia Olatzagutian irudikatzen gonbitea

Lewis Carrollen *Alizia lurralde miragarrian* liburuak aurtengo 150 urte beteko ditu. Hori dela eta Olatzagutiko liburutegiak haur, gazte eta helduei zuzendutako ipuin lehiaketa antolatu du. Lehiaketan aurkeztuko diren lanetan Alizia Olatzagutian kokatu behar du. Lanak euskaraz edo gaztelaniak idatzi daitezke eta haiek maiatzaren 28ra arte liburutegian aurkeztu daitezke.

Dionisidororen sexu maldizioa

Gaur, 21:30ean, Irurtzongo kultur etxean

Luna producciones-ek hainbat kantu ezagun tartekatzen duen komedia ganberroa eskainiko du gaur: *Historia sexual de la humanidad*. Gizateriaren historiako sentimentalaren une jakinak errepasatuko ditu obrak Dionisidororen eskutik. Greziar hitzontzizigajoak Atenearekin, gerraren jainkoarekin, harremana hasi du. Berak Ate-neak baino azkarrago joan nahi du eta azken horrek eternitatean barna historiako emakume garrantzitsuenak ezagutu baina haiekinezin gozatzera zigortzen du.

Dionisidororen maldizioak ikusleak antzinako Greziatik eta Egiptotik Erdi Arora eta Errege Katolikoan garaira eramanez ditu, Frantziako erreboluziotik pasaz gaur egunera iritsi arte. Garaian garaiko emakume garrantzitsuenak ezagutuko ditu Dionisidorok. Bidaian dibertsioa, garaian garaiko musika eta umorea ez dira faltako, antzezlan dinamikoak sortuz. Eszenatik bost aktorek jokaturako 30 bat pertsonaia pasako dira.

bazterretik

Andoni Igoa

Rafael Moneo

Aurtengo Nafarroako Unibertsitateko arkitektura eskolaren 50. urteurrena zela eta, Pritzker saria lortu duten 3 arkitekto bildu zituzten bertan, hitzaldi jendetsu batzuk emateko. Arkitektura munduko nobel sariak lirateke Pritzker sariak. Maisu hauek Soto de Moura portugaldarra, Alvaro Siza portugaldarra (hau ez zen agertu, bideoz hitz egiteko aukera izan zuen) eta Rafael Moneo tuterarra dira, alegia.

Beste biak oso interesgarriak izan arren, Moneoren inguruan bideratu nahiko nituzke gaurko hitzak. Mundu mailan arkitektura eta arte arloetan nafar honek duen izena sinestezina da, errespetatuenetakoa baita. Agian bere eraikinak ez dira beste batzuenak bezain deigarriak, baina dotorezia eta sentibiltate handiz eginikoak dira denak. Unibertsitatean nengoela bere hitzaldi batera joateko aukera izan nuen, bertan ere auditorioa entzulez gainezka egon zen. Momentu

hartan Los Angeleseko katedrala egin berri zuen eta bere diseinua eta esperientziei buruz hitz egin zigun. Hau eraikin ikusgarria nahiz ederra iruditu zitzaidan. Munduan zehar obra ospetsu ugari ditu baina gertuko batzuk izendatuko ditut. Esaterako Donostiako Kursaal, Iruñean dagoen Nafarroako Artxiboa, Iruñeko Foru enparantza, Lizarrako Julian Chivite upategia, Deustuko Unibertsitateko liburutegi berria eta Iruñean bukatzeaz dagoen Nafarroako Unibertsitateko



arte museoa. Iruñeko museoa obran zegoela ikusleko aukera izan nuen duela hilabete batzuk eta Nafarroako eraikin esanguratsuenetakoa bat bilakatu dela aurreratuko nuke. Eraikin osoa interesgarria iruditu zitzaidan

batez ere teilatuan sortutako espazioa. Moneok museo honi buruz egindako hitz batzuekin bukatuko dut: “Ez nuen nahi museoa tresna bat izan zedin, kanpotik paisaia bat baldin bada, barrutik eraikinak hiri bat izatea nahi dut”.

Musika jaialdia **Maisuenearen 20. urteurrenean**

Bihar, 18:30etik aurrera, Olatzagutiko gaztetxearen aurreko aldean

Gazte olaztiarrek 1995eko maiatzaren 10ean okupatu zituzten irakasleen etxeak izandakoak. Haietan gaztetxea martxan jarri zuten, Maisuenea. Olaztiko Gazte Asanbladak (OGA) urteurrena ospatzeko musika jaialdi handia prestatu du. Hala ere, haren aurkezpenean OGAKo kideek nabarmendu zuten bi hamarkadako ibilbidean “oztopo ugari izan ditugu eta honaino iristea ez da erraza izan”. Gazteek esan dutenez, “urteetan egindako lanarekin herrian altxor hau izatea lortu dugu”. Horregatik, “ametsak errealitate bihurtzen” lagundu dieten guztiei esker ona azaldu diete.

Gehiago azken orrian.

Gozategi



Aurretik plaza asko zapatuak bazituen ere, taldearen aurreneko diskoa gaztetxea okupatu zen urte berean argitaratu zuen Gozategik, 1995ean. Kantu fresko eta dantzagarri betetako errepertorioa du Gozategik.

Behin Betiko

Duela 20 urte gaztetxean jo zuen Lakuntzako taldeak eta urteurrenaren kontura gonbitea jaso eta baita onartu ere. Sergio Goikoetxeak (baxua) azaldu digunez, bihar ko emanaldia prestatzeko bi hilabete entseatzeko emandituzte, “lan asko egin dugu errepertorioa berreskuratzen”. Berarekin bate-

Hesian



Hegalak astintzen heldu da Hesian Olatzagutira, seigarren diskoa aurkeztera. Musika indartsua eta bizia, haizeekin eta neska-mutil ahotsekin hornituriko punk-rock melodikoa.

Arkada social



Arrasateko street punk taldea izanenda eszenatokiara igotzen azkena. Hainbatean berpiztu den taldeak lau disko eta DVD bat ditu argitaratuak.

Ludovaina



Talde bat bukatu eta bestea hasi bitarteko tartean ariko dira galiziarrek jotzen. Galiziako musika estilo tradizionalari aire berri bat eman dio Ludovaina laukoteak.

Oihan Vega



Taldeak despiditu ondoren musika festak disko jartzailearekin segituko du, Oihan Vegarekin. Aurretik Olatzagutiko festetan egona da dj ezaguna. Telebista eta irrati saioengatik ezaguna, Oihan Vega denetarikomusikamotez osatutako disko festekin plazak betetzera pasa da.

Ikasleak eta liburuak Irurtzungo plazan



Liburuaren Egunean, Atakondoa eskolako ikasleak une batez ikastetxea utzi eta Foru plazara joan ziren. Ikasle taldeak irakasleekin batera, Irurtzungo plazan banatuta zeuden lau eremuetatik pasa ziren. Batean liburu trukea egiteko aukera izan zuten. Aurretik ikasleek eskolara

etxean soberan zituzten liburuak eraman zituzten eta apirilaren 23an beste bategatik trukatzeko aukera izan zuten. Gainera, orri markatzaileak egin, heldu batek irakurritako poesiak iradokitakoarekin marrazkia egin zuten eta komiki modukoa ere osatu zuten. +www.guaixe.eus



Liburutegia, ilustrazio tailerra

Yolanda Arrieta idazleak eta Aitziber Alonso ilustratzaileak horretan bihurtu zuten Ziordiko liburutegia apirilaren 24an. Sakanako Mankomunitateko Eus-

kara Zerbitzuak Etxepare saria egitasmoaren baitan antolatutako ilustrazio tailerrean 6 eta 10 urte bitarteko haurrek album ilustratu bat nola egin ikasi zuten.

Dantza campusa Altsasun

Garilaren 12tik 19ra izanen da, 8 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduta

Udara dantzan campusa martxan jarri dute hiru ekintzailek. Altsasun egingen den kanpaldi batek hartuko du campusa. Aste batez, haur eta gazteek dantzaren bidez esploratu, ikasi, sortu eta adierazten ikasteko espazio bat izanen dute. Beti ere, dantzari bakoitzaren estiloa errespetatuz baina, aldi berean, dantza estilo ezberdinetako koreografiak ikasiz (klasi-koa, flamenkoa, modernoa, jazz, garaikidea...).

Goizez Irantzu Gonzalez eta beste dantza irakasle batzuen esanetara ariko dira. Bazkaldu ondoren entseguetarako ordu bat izanen da. Arratsaldean, berriz, tailerrak eta irteerak egingen dituzte.

Informazio gehiago:

634269508
udarandantzan@gmail.com
udarandantzan.wordpress.com

Dantzarako gogoak kutsatzen dituen birusa

Larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean Quiero Teatro eta Ludotekako dantza tailerra

Hip-hop eta break dance erritmoa hiru historia kontatzen ditu *The dancing dead* ikuskizunak; zein baino zein fantastikoagoa. Musika-ren erritmoak eta hark eragindako mugimenduak dantzariak protagonista bihurtuko ditu eta zombiei, banpiroei bestelako izaki hilezko dantzazaleei aurre egin beharko diete.

Eta dantzari olaztiarrek

Akelarre ludotekak *Jolasean dantzan*, dantza tailerra eskaini zien lau eta sei urte bitarteko haurrei. Irantzu Gonzalez irakaslearekin 15:30etik 17:00etara aritu ziren txikiak eta gurasoekin ere saio bat egin zuten. Haiek prestatutako koreografia ludotekaren urtebetetze festan eman zuten.

Esperientzia positiboa ikusita, ikasturte honetan ere dantza



tailerra eskaintza egin du ludotekak. Baina oraingoan zortzi urtetatik gorakoek ere aukera izan dute parte hartzeko. Hau da, ludotekako erabiltzaile guztiek izan dute aukera dantzan trebatzeko. Koreografia prestatu dute txikienek eta handienek. Azken horiek larunbatean *The dancing dead* saioaren aurretik ariko dira. Bi taldeek domekan elkarrekin entseatu zuten Olatzagutian. Esperientzia “izugarria” suertatzen ari da dantzariendako. Txikienek, bestalde, euren koreografia ludotekaren urteurren festa emanen dute.



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 48%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 8%	euria: 10%	euria: 13%
Min: 14 Max: 20	Min: 9 Max: 18	Min: 8 Max: 27	Min: 12 Max: 28	Min: 14 Max: 27	Min: 12 Max: 22	Min: 11 Max: 20

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	26.5	7	2.1
Etxarri A.	24.6	2.8	8.4
Altsasu	24	5	4.2
Aralar	17.3	3.7	12.7
Urbasa	20.9	1.9	4.2

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
11	18	25	2

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com
ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Maiatzeko bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gazte zulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

2., 3. ETA 4. SARIA: Gazte zulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.



Olaztikoko Gazte Asanbladako laukoteak Guaixeko lehen elkarrizketa digitalean parte hartu zuen.

>> 11 galdera

Aritz, Joseba, Irantzu eta Lorena

Olaztikoko Gazte Asanbladako 20 urte

www.guaixe.eus-en
online egindako elkarrizketa

1. Orain dela 20 urte maisuen etxea zena okupatu zenuten. Olaztikoko hainbat gaztek haien ideiak aldarrikatzeko leku bat behar zuten eta maisuen etxea okupatzeara erabaki zuten.
2. Ordutik zer antolatzen du Maisueneak? Denetatik. Kontzertuak, bazkari herrikoiak, antzerkiak, hitzaldiak, bakarrizketak, haurrendako jolasak, tailerrak, zinea, Sartenix txapelketa, areto futbol txapelketa, esku pilota txapelketa, partxis txapelketa.... eta abar. Norbaitek zer-bait antolatunahi izanez gero, lasai hurbildu daiteke gaztetxera eta bere ideiak proposatu, guk gero ideia horiek aurrera eraman ditzagun.
3. 20 urte hauetan belaunaldi aldaketa egon da? Uff.... pila bat! Gaztetxea okupatu zutenek orain 40 urte inguru

izango dituzte. Egun, normalean 30 pertsona inguru biltzen gara.

4. Euskal Herriko gainontzeko gaztetxeekin harremanetan zaudete?

Bai, orain dela urte batzuk Abadiñoko gaztetxea Olaztira etorri zen eta harreman ona egin genuen. Eta Sakanako gazte asanbladekin ondo moldatzen gara.

5. Obra garrantzitsurik egin ahal duzue tarte honetan?

Bai, hainbat ekintzatatik dirua atera eta gero gaztetxea berritu dugu: leihoak, zorua, sua, eszena-tokia, sukualdea, literak, jantokia, komunak...

6. Zer diote herritarrek gaztetxeaz? Uste duzue zuek egindako lanarekin gaztetxeek betidanik izan duten fama txarra uxatu duzuela?

Hasieran Maisueneak ez zuen nahiko fama ona, baina denbora-rekin uste dugu erakutsi dugula bai ekintzen eta bai lanaren bidez herriari ekarpen handia egiten diogula. Denetarik dago, leku guztietan bezala, baina orokorrean oso pozik gaude herriak emandako babesarekin, beti laguntzeko prest baitago.

7. Zein musika talde pasatu dira 20 urte luze hauetan gaztetxetik?

Talde asko eta asko pasa dira Maisueneatik: KOMA, Kauta, Enkore, Betagarri, Vendetta, Esne Beltza, Governors, Gose, Hesian, Kao-tiko, Altxatu, El trono, Stupenda Jones, Alerta Gorria, Kaleginez, Beltzebu, DJ-ak...

8. 20 urte hauetan hainbat jende, talde eta kolektibo pasa dira gaztetxetik. Nola ikusten duzue Maisuenearen etorkizuna?

Galdera polita. Bai, hainbat talde, jende eta kolektibo pasa dira bertatik. Olaztikoko gaztetxeak, gauza guztiak bezala, bere momentu onak eta txarrak izan ditu, eta egia esan momentu hau ez da gazte-txearen momenturik onena. Espero dugu pixkanaka hobera joatea eta gauzak aldatzea.

9. Maisuenearen hurrengo erronkak zeintzuk dira?

Asko eta asko, ideien bitartez aterako dira guztiak baina esan beharra dago egiten jarraituko ditugula.

10. Larunbatean 20. urteurrena ospatzeko musika estilo ezberdinak jaialdi mundiala antolatu duzue. Behin Betiko berpiztu duzue, Hesian, Gozategi, Oihan Vega... zaila izan da beraiekin kontzertua lotzea?

Zaila egin zaigu halako kontzertuak lortzea baina esfortzuaren bidez dena lor daitekeela uste dugu, eta Barandiren laguntza eta kontaktuei esker kartel hau ateratzea lortu dugu. Kontaktua asko ditu, eta musikariak pozik gelditzen dira Maisuenean jo eta gero. Mundiala da eta mundiala izango da!

11. Sarrerarik geratzen da?

Larunbatean egunean bertan sarrerak erosteko aukera izango duzue. Gogoratu, 18:30etik aurrera! Jende asko espero dugu. Larunbatean elkar ikusiko dugulakoan, ongi izan!

Udaberriko gehigarriak Guaixen:

MASKOTAK eta BIZIKLETAK

Publizitatea hemen:
948 564 275
publi@guaixe.net
publizitatea@guaixe.net